

ESKUBIDE URRAKETA AEBetan:

Abortua debekatu ondoren, «in vitro»
ernalkuntzaren kontra Alabaman > 7

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zein da istilu guztietan egon den
talde antolatua? IÑAKI ALTUNA > 11

2024ko martxoaren 9a | XVIII. urtea • 867. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



BIZIPOZA ESKOLA, GUZTIONTZAT BEHARKO LUKEEN MUNDUA ATONTZEKO NAHIA

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA. ESKOLA DEN MUNDU HORI ERE
EZ DA GUZTIONTZAT. ONDO DAKITE HORI BIZIPOZA ELKARTEA OSATZEN DUTEN 38
ELKARTEEK; HEZKUNTZA SISTEMAK EGUNEROKORAKO JANZTEN DITUEN
BETAURREKOEKIN EZ DIRA HAUR GUZTIEN ÑABARDURAK IKUSTEN. BETAURREKOAK
ALDATZEKO APUSTUA DA BIZIPOZA ESKOLA. > 12 TAPUNTU KOOPERATIBA



4



7



16



Kasko urdinek Kongo utziko dute, segurtasun hutsuneak oraindik handiak izan arren 04

«In vitro» ernalkuntzaren kontra egin dute orain Alabaman 07

Bizipoza Eskola, elkarteek landutako balioak hezkuntzan aplikatzeko baliabidea 12

«Van Gogh Experience», kolore eta musika karrusela Bilbon 16

Gazteen buru-osasuna zainduko duen hirigintza aletzen 18

Euskal ikertzaileak marrazoen behaketan 22

«Ihesa zilegi balitz», migrazioari aurpegia jarri diote 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



27

SINADURAK:

03 **Maite Ubiria Beaumont:**

Askatasunaren tenplua da gure gorputza

10 **Saioa Aginako Lamarain:**

Bertsiorik onena

11 **Iñaki Altuna:** Zein da istilu guztietan egon den talde antolatua?

20 **Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza:**

Harreman Osasuna:

harremantzen naiz; beraz banaiz

21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Gazako su-etenaren zain, Europa gerrarako prestatzen

25 **Itzea Urkizu Arsuaga:**

Igogailuan behera

25 **Miren Azkarate Badiola:** 40

26 **Amaia Ballesteros**

30 **Ainara Estarrona Ibarloza:**

CLARIA-EUS: Humanitateak, Gizarte Zientziak eta teknologiak bat egiten dutenean



{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Askatasunaren tenplua da gure gorputza

Estatu Batuetako hainbat eskualdetan abortatzeko eskubidea ukatzeko hartutako erabakiek bultzatu zuten frantziar Estatu burua urrats hori egitera. Geroztik, elkarrizketak abian eman zituen «Veil legea»-n jasotako oinarritzko aitortpena marmolez zizelkatzeko. Erabateko bermerik ez bada ere, balizko hargin-maisuak zailagoa izanen du haurdunaldia eteteko eskubidea lurrera botatzea.

Gizon eta emazteen arteko berdintasuna bere agintaldiaren lehentasun gisa izendatu zuen Emmanuel Macronek momentua zaindu du. Egia da denborak ihes egin diola, 2007an ahoskatu baitzuen aipaturiko helburua. Izan ere, Frantzia abortuaren eskubidea bere Konstituzioan sartuko duen munduko lehen estatu gisa agertu izanak balio politiko eta sinbolikoa du, eta hori probesten jakinen du Eliseoko buruak.

Versaillesen, diputatu eta senatarien bozka amankomun batekin borobildu du Macronek; ezkerreko popularen bultzadarik gabe, nekez gauzatuko litzateke egitasmoa. Giscard'Estaing presidente zentrista agintean zelarik onartu zen 1975ean abortuaren legea.

Bozketa solemne baten bidez egikaritu du Macronek bere presidentetzan aztarna uzteko egitasmoa.

Lehenengo bozketara heltzeko emazteek egin zuten hil ala biziko borroka ezinbestekoa izan zen bezala, gaur ere, hitza askatuz abiadura berri batera pasatu den feminismoak eginiko akuilu lana nabarmentzea ezinbestekoa da. Baita «denon artean eginiko urrats» horren argi-ilunak mahaigainean ezartzea ere.

Eskertzekoa da Macronek eginiko hautua. Oinarritzko eskubidea iraunkortzeko lege egitasmoa aurkeztu baitu balizko erreferendumaren aukerak ekar zezakeen haustura giroari iskin eginez. Handik aurrera, ekimenak bildu duen sostengu zabala ikusita, mesfi-

dantzaz pentsatu daiteke ez zela premiazkoa nehorik gutxik zalantzan ematen duen eskubidea egonkortzera jotzea. Hala ere, bozketak utzitako emaitza aztertuta, prebentzioz jokatzeko gomendagarria da.

Bozketa kaierari erreparaturik, Macronek aldekoek ekimena aho batez babestu zuten. Diputatu batek, Vincent Bru kanboarrak, abstentziora jo zuen. Esanguratsua da Macron babesten duten aliatu zentristek agerturiko ezinegona. 11 eledun zentristek muzin egin zioten -Gabriel Attal lehen ministroak berreskuraturiko esamoldea baliatutik- «gorputza emazteen askatasunaren tenplua dela» aitortzeari.

Errepublikanoen alderdiari dagokionez, are esanguratsua izan zen atzera jotzeko erantzuna. Talde horrek 58 diputatu eta 99 senatari propio ditu: 50 haute-

Planning Familiar elkarteak ohartarazi du 1975az geroztik legezkoa den eskubidea bermatzeko oztopoak badirela oraindik. Zentroen aurkako erasoak areagotu dira; erakundeen sostengua, ordea, ahuldu.

tsik errefusatu zuten testua eta beste 18k abstenitzea erabaki zuten. Finean, Marine Le Penen alderdiak 88 diputatu ditu, eta 3 senatari. Eskuin-muturreko 13 hautetsik ezezko botoa eman zuten eta beste 20k abstentzioaren pean babestu zuten beraien burua.

Sarritan, ezkerrearen desadostasunak agerian jartzen dituzte frantziar hedabideek. Oraingoan nabarduraz beteriko kontsentsu orokor batean urtu dute, ordea, eremu horren sendotasuna. Haatik, emazteek haien eskubide ororen jabe bilakatzeko bidean aliatu iraunkorrek beharko dituztenez, idatzita utzi dezagun, etiketa bat edo bestea izan, legebiltzar ezkertiar guztiguztiek aldeko botoa eman zutela Versaillesen. •

NBE-REN ERRETIRATZEA

Kasko urdinek Kongoko Errepublika Demokratikoa utziko dute 25 urte ondoren

📁 HISTORIA ARMATUA / GAUR8

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Kongoko Errepublika Demokratikoan (KED) duen bake-misioak (Monusco) base baten kontrola tokiko agintarien esku utzi zuen joan den astean. Eta urrats horren bitartez, herrialde horretatik erretiratzeari ekin zion.

Izan ere, hiru fasetan, nazioarteko tropak pixkanaka Afrikako herrialdeetara aterako dira 25 urteko misioaren ondoren.

Monuscok (lehen Monuc izena zuen misioa) 15.000 kasko urdin inguru ditu gaur egun, eta eskualdeko hiru probintzia gatazkatsuenetan jarraitzen zuten: Hegoaldeko eta Iparraldeko Kivun, eta baita Iturin ere.

Joan den otsailaren 28an, Monuscok 2005etik kontrolatzen zuen Kamanyolako basea utzi zuen, Hegoaldeko Kivu probintzian.

Misioaren buruak, Bintou Keitak, Kamanyolako basea entregatzea eta tokian Poliziaren komisaria berri bat eraikitzea atzera-egite ordenatu baten urratsa izango dela espero duela esan zuen.

NBEk eta Kinshasak erretiratzea «ordenatua, arduratsua eta iraunkorra» izatea nahi duela adierazi dute.

Azaroan sinatutako hitzarmenak ezarri zuen moduan, Hego Kivu Monuscoren indarrik gabe geratuko den lehen eskualdea izango da.

Kamanyolako basean egin dako zeremonia batean, Rwanda eta Burundiko mugetatik oso gertu, Nazio Batuen banderak eta Pakistangoak –Kasko Urdin erantzuleen sorterrikoak– Kongoko Errepublika Demokratikoarenak ordezkatu zituzten.

Nazio Batuen Erakundeak Kongoko Errepublika Demokratikotik erretiratzeke prozesuari ekin dio, bere baseak bertako agintarien esku utziko ditu. 15.000 kasko urdin urte amaierarako ateratzea espero du Kinshashak. Bete beharko dituen segurtasun hutsuneak oraindik oso handiak dira, hala ere; talde armatu ugari borrokan ari dira eta.

«Kongoko agintariak zoriontzen ditut Polizia Nazionalak Kamanyolan emandako laguntzagatik, Gobernuak hartutako konpromisoen arabera, Defentsa eta Segurtasun indarren boterea eta gaitasuna handitzeko helburuarekin, Monuscoren irteerarekin batera», adierazi zuen Keitak, misioa hasi eta ia bi hamarkada geroago.

Jean-Bosco Galenga Polizia Nazionalaren ordezkariak ekitaldian nabarmendu zuenez, erreleboa «bakearen itzulera adierazle da», eta Marc Malago Kashekere Hego Kivuko gobernadoreak, bere aldetik, alde guztien arteko «lankidetzona» goraiatu zuen, misioak berak jakinarazi duenez.

Modu horretan, 25 urteko presentziaren ondoren, Kasko Urdinen erretiratzea abenduan ofiziala egin zuen NBEko Segurtasun Kontseiluak, Kongoko ekialdeko indarkeriaren gorakadagatik kezkatuta egon arren.

Kinshasak eskatutako erretiratzea hiru fasetan egingo da.

Lehenengoak Monusco Hego Kivutik erretiratzea aurreikusuten du, apirilaren 30a baino lehen, bere soldadu eta polizientzat, eta ekainaren 30a baino lehen bere osagai zibilarrentzat. Beraz, maiatza baino lehen, NBEko indarrek probintzian dituzten 14 baseak utzi eta Kongoko segurtasun indarren esku utziko dituzte. Kamanyo-

lako da Polizia Nazionalari giltzak eman zizkion lehena.

Erretiratzearen bigarren eta hirugarren faseak Iturin eta Iparraldeko Kivun izango dira, baina aurreko etapetako apli-

Kongoko Polizia Nazionalako kideek Kongoko Errepublika Demokratikoko bandera jaso zuten, Pakistango bakea mantentzeko NBEren misioako kideekin batera egindako ekitaldi batean.
Glody MURHABAZI | AFP

kazioaren aldizkako ebaluazioak egin ondoren bakarrik aktibatuko dira.

Urtarrilean, Christophe Lutundula Kongoko Kanpo Arazoetako ministroak argi eta garbi adierazi zuen bere asmoa urte honen amaieran erretiratzea osatuta egotea dela.

«Une historikoa da», esan zuen bere hitzaldian Monusco indarren jarduneko komandante buruak, Diouf Khar jeneralak. «Kamanyolarekin hasi ginen, hemen egonkortasuna dagoelako, eta horri esker joan gaitzek», adierazi zuen orduan Monuscoko buruak, Bintou Keitak.



«EZ HOTZ, EZ BERO»

Ehun mila biztanle dituen hirian, irteerari buruzko iritziak banatuta daude. «Ez nau ez hotz ez bero sentiarazten», dio Ombeni Ntabobak, bertako Gazte Kontseiluko presidentea.

Esan zuenez, gauero «ibilgailu blindatuetan Ruziziko lautadarantz ibiltzen ikusten genituen», geratzen diren talde armatuek mehatxatutako muga-zerrenda batera. «Baina oraindik segurtasun falta dago, lapurreta armatuak, bahiketak...», jarraitzen du gazteak.

«Pozik hartzen dugu Kongo gobernuaren erabakia»,

«Pozik hartzen dugu erabakia», adierazi zuen Mibonda Shingirek, giza eskubideen aldeko ekintzaileak. Hala ere, beldur da erretiratzeak izango duen eragin ekonomikoagatik**«Monuscoren bake-indarrak ateratzeak kezkatzen gaitu, herrialdea Rwandako gure bizilagunek babestutako errebeldeekin gerran dagoen une honetan»**


adierazi zuen Mibonda Shingirek, giza eskubideen aldeko ekintzaileak. Hala ere, beldur da erretiratzeak izango duen eragin ekonomiko negatiboagatik. Izan ere, Kamanyolako biztanleek «enplegua zuten Monuscoren basean».

Batzuk, hala nola Joe Wendo, irakaslea, beldur dira, aitzitik, Kamanyolatik ehun bat kasko urdin pakistandarren irteerak utzitako «segurtasun hutsuneaz». «Haien presentziarekin, gutxienez Rwandako inbaditzaileengandik babestuta geunden», uste du.

«SEGURTASUN-ARRAKALA BETE»

Izan ere, duela 30 urte indarkeria armatu kronikoak astindu dituen ekialdeko probintziatik Monusco erretiratzen hasi den bitartean, Ipar Kivun krisia larriagotzen ari da, 2021aren amaieran M23 matxinada ("Martxoaren 23ko mugimendua") piztu zenetik. Mugimendu horrek, Rwandaren laguntzarekin, lurralde-eremu handiak bereganatu zituen.

Borrokak otsailaren hasieran areagotu ziren probintziako hiriburutik gertu, Goman, eta Monuscok gogorarazi zuen «Kongoko indar armatuei babesa» ematen diela, «posizioak defendatzen dituela», «zibilen pasabide segurua errazten duela»... Baina herritarrek misioari gorapen baino kritika gehiago egin diote.



Pakistango kasko urdin bat erretiratze egunean. Glody MURHABAZI | AFP

«Monuscoren bake-indarrak ateratzeak kezkatzen gaitu, herrialdea Rwandako gure bizilagunek babestutako errebeldeekin gerran dagoen une honetan», aitortu zuen Beatrice Tubatunziye Kamanyolako garapen-elkarte bateko arduradunak. Hala ere, Kongoko armadak «hutsune hori azkar beteko duela» sinetsi nahi du.

NBEk azpimarratu zuen Kasko Urdinen irteera Kongoko segurtasun indarren «botere igoerarekin» paraleloan egin behar dela, zibilak babesteko kontrola bere gain hartu beharko baitute.

Eskualdean segurtasuna lortzetik urrun dagoela frogatzeko, M23 talde armatu matxi-noak eta Kongoko Indar Armatuek borroka gogorak izan zituzten joan den astelehenean Bwiton, Rutshuruko lurraldean, Ipar Kivun. Ehunka familiak ihes egin zuten iparralderantz, M23ko miliziek hainbat frontetan egindako erasoaldiaren ostean. Borrokak Nyanzale herriaren ingu-

ruan eta Mabenga eskualdean bildu ziren. Zona hartako bizilagunek Mateten (Nyanzaletik gertu) eta Kosoko, Mubirubiru eta Lwangan (Nyanzaletik gertu) arma arinekin izandako leherketen eta tiroketen berri eman zuten.

Handik gutxira, bomba batek eztanda egin zuen Kihondo herrian, NBERen misiotik.

Bitartean, gizarte zibileko pertsona ezagunek ohartarazi zuten 20.000 desplazatutako bano gehiagok premiazko laguntza behar dutela Minovan, Kalegeko lurraldean, Hego Kivun. Desplazatuak Bahundeko lurraldetik datoz, Masisi lurraldetik, eta hilabete baino gehiago daramate arrasoan lo egiten, inolako elikagairik jaso gabe.

Ostatu hartu zuten elizek eta eskolek otsailaren bukaeran bota egin zituzten eta orain gizarte zibila gaixotasun infektzioen agerraldien beldur da, higiene egokirik ez dutelako.

Bestalde, Monuscoren erretiratzean bestelako arazoak ere

25 URTEKO HISTORIA GORABEHERATSUA

sortu dira. Misioren zeuden bi soldadu hegoafrikar hil ziren joan den ostegunean herrialde horretan, Hegoafrikako Defentsa Nazionaleko Indarrak (Sandf) jakitera eman zuenez.

«Horietako batek bestea arauzko armaz tirokatu eta hil zuen, ondorio latzekin bere buroari tiro egin aurretik», azaldu zuen Sandfek ohar batean.

Hego Afrikako Indar Armatuak «ikerketa batzorde bat» deitu zuten, «Monuscoko komandoarekin lan egiteko, gertakaria eta horren nondik norakoak ikertzeko».

Hon Thandi Modise Hegoafrikako Defentsa eta Beterano Militarren ministroak gertakariagatik «hunkituta» zegoela adierazi zuen.

Joan den otsailaren 14an, herrialde australeko beste bi soldadu hil ziren Kongoko Errepublika Demokratikoan talde matxinoen aurka borrokatzeko zabalduak indar hegoafrikarren base batean mortero bonba bat erori zenean.

Bi militar horiek Hego Afrikako Garapen Komunitatearen (SADC) indarraren parte ziren.

Joan den otsailaren 12an, Cyril Ramaphosa Hegoafrikako presidentea 2.900 soldadu hedatzeko agindu zuen LDZ-ren kontingente gisa, KEDren ekialdeko talde armatuen legez kanpoko jardueren aurka borrokan laguntzeko».

Ramaphosak jakinarazi zuenez, 2023ko abenduaren 15etik 2024ko abenduaren 15era bitarteko aldia hartuko du misio horrek.

SADCren indarra joan den abenduan hasi zen hedatzen Hegoafrikako militarrekin KEDren ekialdean, ehun talde armatuk astindutako lurralde horretan bakea inposatzeko, Monuscoren erretiratzearekin batera.

NBEk Kongoko Errepublika Demokratikoan duen Misioa (Monusco Monuc ohia) indarkeria armatuz josita dagoen Afrika erdialdeko herrialde zabalaren historia nahasiaren parte izan da. Monuc 1999ko azaroaren 30eko Segurtasun Kontseiluaren 1279 ebazpenaren bidez sortu zen, «Kongoko Bigarren Gerrako» gerra-egileen arteko su-etena behatzeko; alde batetik, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Namibia eta Zimbabwek lagunduta, eta, bestetik, Ugandak eta Rwandak.

Segurtasun Kontseiluak atzerriko indarrak Kongoko lurretatik erretiratzea exijitu zuen eta gatazkan inplikaturik zeuden estatuei eskatu zien Kongoko Errepublika Demokratikoaren barne-arazoetan gehiago ez esku hartzeko.

MISIOAK

Ondoren, Segurtasun Kontseiluak misioak gehitu zizkion Monuc-i: laguntza humanitaria ematen laguntzea, talde armatuak desmobilizatzea, berreraikitzea, hauteskundeak antolatzea, irratizazioak sortzea eta, batez ere, zibilak babestea, egungo agintaldiaren erdigunean dagoen misioa, alegia.

Hasiera batean, indarra Goma (Ipar Kivu), Kisangani (Tshopo) eta Kalemie (Tanganyika), eremu errebeldeetan kokatua zegoen, baita Kanangan (Erdialdeko Kasai), Mbandakan eta Kinshasan ere, Gobernuaren eremuan.

Bere gorenean 20.000 soldadu baino gehiago zituen eta bere urteko aurrekontua mila milioi dolarretik gorakoa zen, eta horrek munduko bakeari eusteko indarrak handiena bihurtu zuen.

Pixkanaka, eskualde «baketsuak» utzi zituen, eta jada ekialdeko hiru probintzian baino ez dago: Hego Kivun, Ipar Kivun eta Iturin.

Monuscok 13.500 soldadu eta 2.000 polizia inguru ditu gaur egun.

1999tik, misioko 400 kide baino gehiago izan dira beren agintaldian erailak, zibilak eta militarrek (161 Monuc banderapean, 260 inguru geroztik).

2009-2010ean, Joseph Kabilaren lehendakari zapean, Gobernuak Monuc erretiratzea eskatu zuen 2011 amaitu baino lehen, herrialdea NBEren presentzia militarra alde batera uzteko gai zela esanez.

2010ean, Segurtasun Kontseiluak eskaera hori partzialki baino ez zuen onartu, eta %10 murriztu zuen pertsonala. Monusco izena jarri zion misioari (Kongoko Errepublika Demokratikoa Egonkortzeko Nazio Batuen Misioa).

2012an matxinada bat piztu zen, M23k (Martxoaren 23ko mugimendua) gidatuta eta Rwandak lagunduta.

2013an, Segurtasun Kontseiluak «esku hartzeko brigada» bat sortu zuen, urte amaieran Kongoko armadari M23 garaitzen lagundu ziona. Baina matxinoek berriro hartu zituzten armak zortzi urte

geroago, 2021. urtearen amaieran.

2022an, Monusco kritikatu zuten matxinoen aurka ez borrokatzeagatik, eta, oro har, 1994an Rwandako genozidioa gertatu zenetik Kongoko ekialdea suntsitzen duten talde armatuetatik zibilak ez babesteagatik.

Manifestazio bortitzek alde egiteko eskatu zuten eta beren bozeramailea Kongoko Errepublika Demokratikotik kanporatu zuten.

2018tik, Segurtasun Kontseiluak Monusco erretiratzea epeka aurreikusi zuen. Baina 2023an, hauteskunde urtean, 2019tik boterean zegoen Felix Tshisekedi presidentearen Gobernuak «azkar» erretiratzeo eskatu zuen.


Abenduaren 19an, Segurtasun Kontseiluak erretiratzea faseka hasi zuen; Hego Kivun hasi behar zen, apiril amaieran, probintzia horretako Kasko Urদিন irteera osoarekin. Lehen fase horren ebaluazio batek erabakiko du, gero, Ipar Kivuko eta Ituriko hurrengo faseak nola egin. NBEk ez du erretiratze osorako egunik finkatu. Gobernuak, bere aldetik, 2024rako osatu nahi du.



Kongoko poliziek hartu zuten Kamanyolako basearen ardura. Glody MURHABAZI | AFP

ENBRIOI SAKRATUAK

Abortua debekatu ostean, «in vitro» ernalkuntzaren kontra Alabaman



📁 ESKUBIDEAK / Urtzi URRUTIKOETXEA

Abortu-eskubide konstituzionala kendu eta ia bi urtera, hura ahalbidetu zuen argudioaren beste ondorio bat iritsi da: ernaldutako obuluak pertsonak direla oinarri hartuta, enbrioi horiek kaltetzea zuhurtziagabeko homizidiotzat har daitekeela ebazti du Alabamako Auzitegi Gorenak. Ondorioak itzelak dira: «in vitro» ernalketan diharduten klinika batzuek jarduera eten dute. Abortuaren aurkako kontserbadore sutsuenetako asko ere aztoratu ditu ebazpenak, eta estatu horretako Kongresuan arazoa konpontzeko urratsak egiten hasi dira.

Otsailaren 16an eman zuten Alabamako Auzitegi Gorenak

ebazpena; horren arabera, eta estatu horretako legedian oinarrirituta, *in vitro* ernalketa bidez sortutako enbrioiak «jaio gabeko haurtzat» hartu behar dira. Klinikak, abokatuak, medikuak eta osasun-zerbitzueta-ko langileak, oro har, eta, batez ere, guraso izan nahi duten pertsonak erabateko ziurgabetasunean geratu dira. Estatuko Ganberak urratsak egiten hasi dira *in vitro* ernalketari legezko babesa emateko. Oraingoan, baina, 2022ko ekainean Dobbs epaia kaleratu zenean (aborturako eskubidea ezabatzen zue-na) askok egindako iragarpenaren urratsa dela dirudi: 1973an lortutako eskubide hori kendu eta, fetua haurtzat hartzearen atea irekita, une hartan asmatu ezin ziren ondorioak gerta zitezkeela, alegia.

Alabamako kasuan, hiru bikotek abiarazitako kasua dago. Hiruretan, umetokitik kanpo *-in vitro-* ernalketa lortu eta haurdun geratzea lortu zuten, baita ume osasuntsuez erditzea ere. Halakoetan ohi denez, enbrioi bat baino gehiago izan ziren (obulu bakarra baino gehiago ernaldu ziren),

Julie Cohenek, «in vitro» ernalkuntzako pazienteak, bere seme-alaben argazki bat erakusten du paziente eta osasun profesionalekin otsailaren 27an Birminghamen egindako mahai inguru batean. Elijah NOUVELAGE | GETTY IMAGES | AFP

eta erabili gabekoak, izoztu eta ernalkuntza klinika batean gorde ziren. Ospitaleko pazien- te batek, baina, enbrioien gordailu horretara sartzea lortu zuen 2020ko abenduan, eta haiek oso tenperatura baxue- tan zeuden edukiontzi krioge- nikoak ireki zuen. Bertan eskua sartzerakoan, hotzez, erre egin zitzaion; une horretan zenbait enbrio jausi eta galdu/suntsi- tu ziren.

Hala, hiru bikotek auzibidea ireki zuten klinikaren aurka, Alabamako legearen arabera, «zuhurtziagabeko homizi- dioa» leporatuta. 2018an boz- katu zuen Hegoaldeko estatu horrek Konstituzioaren alda- keta, bizitza ernalkuntzan has- ten dela ezarri zezaten Konsti-

«Alabamako herriak adierazi du estatu honetako politika publikoa dela jaio gabeko gizakien bizia sakratutzat hartzea», dio Tom Parker epaileak ebazpenean

Alabamako Auzitegi Gorenak ez du, berez, «in vitro» ernalkuntza debekatzen, baina lehen aldiz Amerikako Estatu Batuetan, enbrioak umetzat hartzen dira

Xavier Becerra AEBetako Osasun eta Giza Zerbitzuetako idazkariak otsailaren 27an Birminghamen egindako mahai inguru batean parte hartu zuen «in vitro» ernalkuntzako paziente eta osasun arloko profesionalekin. Elijah NOUVELAGE | GETTY IMAGES | AFP

tuzioan. Hurrengo urtean, le- ge zehatza onartu zuten, abortu kasu guztietan debekatu- z, baita bortxaketetan ere, aurre- ko argudioari jarraika. Garai hartan indarrean zegoen Roe, 1973tik abortu-eskubidea ba- besten zuen aurrekari judizia- la; estatuek abortua debeka-

tzeko neurriak onartzean, ba- bes Konstituzional horrek in- dargabetu egiten zituen.

Hasiera batean, epaileek ez zuten onartu salaketa, era kriogenikoan kontserbatutako enbrioak «pertsone» defini- ziotik kanpo geratzen direla argudiatuta. Salatzaileen he- legitea Alabamako Gorenera iri- tsi zen, ordea. Duela bi aste, ezusteko ebazpena hartu zuen; horren arabera, «garai hartan umetoki biologikotik kanpo zeuden haur gabeko haurrak» dira, Eliza eta estatua bereizita dauden zantzurik ga- beko epaian irakur daitekeen- ez (zortzi epailek sinatzen dute alde, eta bakar batek aur- ka). Hala, kasua «adingabe ba- ten zuhurtziagabeko heriotza-

ren» legearen babespean dago. «Alabamako herriak adierazi du estatu honetako politika publikoa dela jaio gabeko giza- kien bizia sakratutzat hartzea»- dio Tom Parker epaileak ebaz- penean-. Gizaki oro, sorkun- dearen unearen, Jainkoaren gi- san egina dela, Hark sortua Haren itxura islatzeko.

Alabamako Auzitegi Gore- nak ez du, berez, *in vitro* ern- alkuntza debekatzen, baina lehen aldiz Estatu Batuetan, enbrioak umetzat hartzen di- ra. Greg Cook epailea da ebaz- penean gehiengoaren aurka sinatzen duen bakarra: «Me- diku-zerbitzu arrazional batek ere ez luke enbrioak sortzen eta gordetzen jarraituko, en- brio horiek betiko mantendu behar dituztela jakinik, eta zuhurtziagabeko homizidioa leporatzeko arriskua daukate- larik». Epaileak erantsi zue- nez, «guraso izan nahi duten Alabamako herritar askok ez dute aurrerantzean aukera hori izango».

KLINIKAK ITXI

Estatuko Auzitegi Gorenaren erabakiaren ondorioak be- rehalakoak izan dira. Hiru kli- nikak gutxienez –horietako bat Montgomery hiriburuko ospitale handi batean– zerbi- tzuak eten dituzte, eta euren paziente batzuek estatutik kanpora jo dute ernalkuntza- prozesuarekin jarraitzeko.

Ohikoa da enbrio bat baino gehiago sortzea, haurdun gera- tzeko zailtasunak dituzten fa- milien kasuan. Gerta liteke, ha- laber, bikoteko kideetako batek gaitz genetikoren bat izatea; gaitza seme-alabei ez pasatze- ko, enbrioan bertan detektatu liteke zenbait kasutan ondare genetikoko hori ba ote dagoen, gaitzik gabekoarekin egiteko aurrera. «*In vitro* prozesuen er-



dietan, gutxi gorabehera, enbrioiak inplantatu/paratu/ezarri aurretik proba genetikoak egiten dira. Izan ere, bikote askoren kasuan bietako bat gaitoxotasun edo egoera larri batekin lotutako mutazio genetiko ezagun baten eramailea da –dio Joan Rosen osasun-politiken irakasleak John Hopkins ospitalearen podcastean–. Horregatik, bikote horiek proba genetikoak egiten dituzte, eta mutazioaren genea aurkituz gero, enbrioia baztertu egiten da». Alabamako epaiaren arabera, ez dago enbrioiak baztertzetik, eta beraz, ez dago azterketa genetikorik egiterik umetokian inplantatu aurretik.

Beste kasu bat, haurra izateko zailtasunak izan, haurdun geratu eta erditu direnena da. Aurrerago bigarren ume bat nahi izatekotan, eta berriz prozedura guztia hutsetik ez has-teko, ohikoa da enbrioiak gordetzea. Milioi eta erdi enbrioi izoztu daude Estatu Batuetan. Alabamako arauaren arabera, betiko gorde beharko lirateke.

ANTIABORTISTAK, AZTORATUTA

Epaiaren erreakzioak sektore antiabortista asko aztoratu ditu. Errepublikano sutsuetako batzuek Alabamako epaitik urrunduta nahi izan dute, gertatutakoa haien jarreraren eta politiken ondorio dela onartu gabe. Donald Trump babestu zuten talde ultrakristau horien presiopean izendatu ziren honelako epaiak ahalbidetu dituzten epaileak. Mike Pence presidenteorde ohia kristau ebanjeliko sutsua eta antiabortista amorratua da, baina berak ere *in vitro* ernalkuntzaren bidez izan zituen haurrak. «Ugalkortasun tratamenduen alde nago erabat, eta uste dut legearen babesa merezi dutela –esan zuen Pencek duela urtebete–. Babes



Elizabeth Goldman bere alabaren argazki batekin, Birminghamen egindako mahai inguruan.

Elijah NOUVELAGE | GETTY IMAGES | AFP

handia eman ziguten antzutasunari aurre egin genion urte luze eta zail horietan».

Donald Trumpez gain, Nikki Haley ere –errepublikanoen primarioetarako lehian geratu den azken hautagaia asteen erretiratu aurretik– bete-betean harrapatu du polemikak. Oro har sektore kontserbadoreen baino jarrera ambiguoagoa izan ohi du abortuari dagokionez, baina Alabamako epaia bete-betean errespetatzen zuela esan zuen duela astebete, «enbrioiak haurrak dira niretzat». Handik ordubetera, ñabarduren ordua

Mike Pence presidenteorde ohia kristau ebanjeliko sutsua eta antiabortista amorratua da, baina berak ere 'in vitro' ernalkuntzaren bidez izan zituen haurrak

Abortuaren aurkako ekintzaileek dagoeneko Alabamako epaia «aurrekaria» dela salatzen dute, beste estatu batzuetan «jaio gabeko bizitza fase guztietan babestu behar dela» argudiatzeko

heldu zen, eta *in vitro* ernalkuntzaren aldekoa zela esan zuen, enbrioiak «jaio gabeko haurrak» direla esanez.

Kontserbadoreen kontraesana begi bistakoa da: abortua haurdunaldia eteteko erabiltzen den bitartean, *in vitro* ernalkuntzak haurdunaldia –eta, ondo bidean– haurra sortzen du. Baina horretarako bidean, balizko haurdunaldi bat baino gehiago sortzen dira.

Gorenko epaiaren aurka, berez, ez dago helegiterik. Alabamako legea interpretatu du azken batean Auzitegiak, eta hor AEBetako Gorenak ez dauka askorik esaterik. Arazoa, agerian geratu denez, legean bertan dago. Horregatik, Alabamako errepublikanoak berehala hasi dira mugitzen, epaiak ekarri duen aztoramena ikusita. Estatuko legebiltzarkideek *in vitro* ernalkuntzan diharduten klinikentzako bermeak onartu dituzte, eta gobernadoreak berehala sinatu du lege berria.

Urrats horrekin, baliteke epaiak ekarritako nahasmena eta pertsona askoren aztoramena lasaitzea. Baina lobby ebanjelikoek, eta haien eraginez Donald Trumpek, hartutako erabakien ondorioak laster ager litezke beste leku askotan. Louisiana, Missouri eta Texas-ko estatuetako legebiltzarkideak –orain arte arrakastarik gabe– neurriak hartzen saiatu dira zenbait neurri antikonzeptibo galarazi nahian, hala nola, umetoki barneko gailuak edo biharamuneko pilula; haurra, enbrioia umetokian kokatzea eragozten dutenak. Oraingoz ez dute aurrera egiterik izan, baina begi-bistakoa da jorra: Alabamaz gain, gutxienez beste 10 estatutako legeek pertsona-izaera ernalkuntzaren unean definitzen dute. Abortuaren aurkako ekintzaileek dagoeneko Alabamako epaia «aurrekaria» dela salatzen dute beste estatu batzuetan, «jaio gabeko bizitza fase guztietan babestu behar dela» argudiatzeko.



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Bertsiorik onena

Hazkunde pertsonalaren esparruan bi gai dira nabarmenak: autoezagutza eta errealizazio pertsonala. Horregatik, gehienoi oso ezaguna zaigu gure bizi helburuetako bat benetan nor garen jakitea izan behar duela. Hasteko, pertsonak ez gara entitate egonkorak. Izaki bizidunak garen aldetik, etengabe aldatzen ari gara, eta aurrerapen edo aldaketa guztien helburua egokitzapena eta ikaskuntza erraztea da. Horrela, eta ondo dakigunez, duela hamar urte ginen pertsona ez da egunero etxetik ateratzen den pertsona bera.

Ez dugu, beraz, Tibetera joan beharrik geure burua aurkitzeko. Gutako bakoitzak egunero aurkitzen du bere burua egiten dugun gauza txiki bakoitzean, lorpen bakoitzean, akats bakoitzean, pasio bakoitzean eta ikaskuntza bakoitzean. Baina benetako ongizatea eta autoerrealizazioa lortzeko, aldian-aldian berrasmatu egin behar gara. Horrela bakarrik azaldu ahal izango da gure bertsiorik onena, desio, amets eta beharrekin sintonizatzen duena.

Esperientzia bakoitzak, hartutako erabaki bakoitzak, pertsona ezagunek, irakurritako liburuek, zaletasunek, bisitatutako herrialdeek eta abarrek aldatu egiten gaituzte. Esperientzia orok arrastoa uzten du gudan. Beraz, ez duzu aurkitu beharrik, ukitzen, ikusten eta sentitzen duzun gauza bakoitzean zaude.

Osotasun pertsonala lortzeko, denok gaude behartuta gure identitatearen zati bat aldatzera, gure bizi-zikloan aurrera egin ahala. Hori egitean, heldu ez ezik, erresilientzian, autoestimuan eta zorientasunean irabazten dugu. Are gehiago, ez du axola zenbat urte ditugun, aldaketak egitea eta geure burua berrasmatea ariketa bat da, beharrezkoa iruditzen zaigunean egin beharrekoa.

Bizitza mugimendua da, eta guk nahi ala ez, aldaketek laguntzen digute hobeto bizirauten, denak zentzua iza-

ten jarrai dezan. Aldaketa horiek egiten ditugu, jada erabilgarri ez dena, gurekin ez doana eta hegoak moztzen dizkiguna atzean uzteko. Garaiz egindako aldaketa batek, batzuetan, arnasa hobeto hartzeko aukera ere ematen digu.

Hala ere, alderdi bat argi izan behar dugu. Norbere burua berrasmatzeko lana ez da erraza, nolabaiteko erronka eta ausardia-dosi handiak eskatzen ditu. Pertsonak “garenari” gehiegi atxikitzen gatzazkio.

Amaitzeko, ez dugu inoiz aldaketarako dugun gaitasuna gutxietsi behar. Gure burmuinak aurre egiten badigu ere, arriskuei aurre egiteko, beldurrei aurre egiteko eta gure erronketatik garaile ateratzeko eginak gaude. Ez duzu bidaia luzerik behar zeure burua aurkitzeko, ez zara beti galdu behar zure burua topatzeko. Zarena eta izan nahi duzuna zure barruan dago. Zeure burua desafiatu behar duzu, beldurrak, atxikimenduak eta konbentzionalismoak menderatu ez zaitzaten, eta pixkanaka auto-aurkikuntzen, erronken eta eraldaketen bidaia bat hasi; zure bertsiorik onena, askeena eta distiratsuena taxutzeko. •

saioaaginaldo@gmail.com



Aldaketek laguntzen digute hobeto bizirauten. GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Zein da istilu guztietan egon den talde antolatua?

Datuak kezkarriak dira. Azkenekoa ostegunean ezagutu genuen. Emakume bat ospitaleratu zuten Real-PSG partidaren aurrekoan izandako Ertzaintzaren kargetan zaurituta. Familiak baieztatu du foam jaurtigai batek eragin ziola kaltea, «lokira zuzenean jaurtia». Istilu horietan, bigarren emakume gazte bat ere zauritu zutela jakin genuen.

Zerrenda luzeegi baten azken berriak izan dira: aurretik, Tolosako ihauterietan egindako karga, gazte bat larriki zauritu zuena; segidan, Real-Mallorca Kopako finalaurrekoan izandako istiluak; biharamunean, beste finalaurrekoan San Mamesen inguruan izandakoak, eta, azken asteburuan, Gasteizen Martxoaren 3ko manifestazioan gertatutakoa. Asteazkenean jakin genuen Gasteizen pertsona bat ospitaleratuta zegoela, ebakuntzaren zain, masailezurra bi lekutan hautsita zeukalako. Eta beste batek perone-haustura izan zezakeela, polizia furgoi batek harrapatu ondoren.

Egoera honen aurrean, deigarriak izan dira Josu Erkoreka Segurtasun sailburuaren hitzak. Gertaera denak lotu zituelako, horiek denak «norbaitek» antolatzen dituelakoan. Eta horien atzean alderdiren bat egon daitekeela iradoki zuelako. EH Bildu jarri nahi izan zuen jomugan.

Istilu guztiak lotzea ariketa tranpatia izan daiteke halako arduradun politiko baten ahotan; berez, horietako bakoitzean egon ahal izan diren motibazioak arras ezberdinak izan daitezkeelako eta, are garrantzitsuagoa dena, bere ardurapean aritu direnen jokabidea kasuz kasu aztertzea galarazi dezakeelako. Denak zaku berean sartuta, badirudi interbentzio bakoitzean Ertzaintzak izan duen jokabide eta erantzukizun zehatzak aztertzea saihestu nahi dela. Auzi orokor bat jarri nahi du Erkorekak: istiluak sortzea norbaitek bi-

deratu duen estrategia bat dela iradokiz, gertaera bakoitzean Sailak eta Ertzaintzak izan ditzaketan ardurak zurrizteko. Izan ere, polizia jardunean hartutako erabakien egokitasuna eta egindakoaren proportzionaltasuna dira neurtu beharrekoak, eta horren arabera egin behar diote aurre arduradun politikoek beren erantzukizunari, nahaste-borrasteak sortu gabe.

Edonola ere, istilu horietan guztietan egon den subjektu bakarra Ertzaintza dela esan beharko litzaioke Erkorekari, eta auzi orokor bat egotekotan, Poliziaren izaerari eta jardunari buruzkoa izan beharko lukeela. Iñigo Cabacasen heriotzak argi eta garbi mahairatu zuen polizia ereduak hausnarketa eta eztabaida sarkona behar duela. Zenbaitetan, ahapeka, Segurtasun Sailleko (Barneko Sailaren garaian) arduradun batzuek hori egiteko zailtasunak ere onartu izan dituzte, erantzain artean errotutako joera ultren ondorioz.

Auzi orokor bat egotekotan, Poliziaren jardunari buruzkoa izan beharko luke. Cabacasenak argi eta garbi mahairatu zuen ereduak aldatu behar dela

Urkulluren Gobernuak, ordea, ez dio gaiari heldu nahi izan; akaso, autokritika gehitxo egin beharko lukeelako. Pradales hautagaiak ere «istiluak sortzen» ditzutenen gain jarri nahi izan du ardura. Jakina, mundu guztian bezalaxe, hemen ere jendea biltzen denean arazoak egon daitezke. Eta izan daitezke talde txiki antolatua ere horrelakoetan. Alabaina, auziari zer betaurrekorekin begiratzen diogun da gakoa. Atxaren garaikoak, hauteskunde giroan sortzen diren alderdikeriarenak (EH Bilduren kontra oraingoan) edota munduko polizietan indartzen ari den joera errepresiboarenak ez dira, inondik ere, egokiak. •

BIZIPOZA ESKOLA

Zipriztindu Bizipozaz guztiontzat izan den mundua, zure eremutik hasita

📁 JENDARTEA / Maider IANTZI GOIENETXE

Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten 38 elkarte biltzen ditu Bizipozak. Laguntza emateaz gain, beren baloreekin aberastu eta hezten da, eta jendartera zabaltzen da. Ekarpen praktiko bezain beharrezko bat dakar orain hezkuntza formal, ez-formal eta herrigintzarentzat: Bizipoza Eskola.

Denontzako Euskal Herria eraikitze bide honetan, premia bati erantzuten dio Bizipoza Eskolak. Bizipoza Elkartearen proiektu berria da. Hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarrekin batera poza partekatzen du elkarte honek, euskaraz eta sorkuntzatik, auzolanean eta balioak zabalduz.

Eskolan, Bizipozako kideek landutako materiala jarri dute guztion esku, bakoitzak gure eremura eraman dezagun eta bizipozean hezi gaitzen.

Nerea Godoy Fuentes eskolako arduraduna da, baita Bizipozako talde eragileko kidea ere, eta Bizipozak biltzen dituen 38 elkarteetako bateko, Sanfilippo sindromea pairatzen duten haur, senide eta lagunen elkarteko, boluntarioa ere bai. Gogoan du nola Bilbo-ko ikastola batean Bizipoza Kantari egin zuten eskolaz kanpo. «Hori izan zen pilotatzeetan pilotatzeena, 5, 6, 7 urteko hurrekin Bizipozako gaiak landu genituelako naturaltasunez, irriz, kantuan, dantzaz, antzerkiarekin eta arte plastikoarekin».

2021ean Danobatgroupen aurkeztu zuten gida didaktikoak egiteko asmoa. Kooperatiba honek bat egin zuen

amets horrekin, eta joan den abenduan bizipozaeskola.eus webgunea abiatu zuten.

Aritu eta adituekin osatu dituzte gida didaktikoak, eta hiru norabide hartu ditu proiektuak: hezkuntza formala, ez-formala eta herrigintza. Izan ere, balio hauek «ez dira eskolaren ardura soilik, ezta elkarreana ere; denok eragin behar dugu elkarrekin».

Bizipoza Eskolaren aurkezpeneko irudi bat, joan den azaroan Usurbilen. Koloretako betaurrekoak jantzi zituzten partaideek, aniztasuna ikusteko. TAPUNTU KOOPERATIBA

Bizipozan material mordoak zuten sortuta: proiektuak, mikrodokumentalak, Bizipozaren dokumentala, elkarrekin euskal kultur sortzaileekin egindako kantu eta bideoklipak, “Irria” aldizkariko komikiak, marrazki bizidunak... «Oinarri sendoa genuen, eta beharra ere bazegoen hezkuntzan. Gure elkarrekin haur eta gazteak gizartearen parte dira: eskolara doaz, aisialdi taldeetara, kirol egokitua egin nahi dute, baina batzuetan bazterrean geratzen dira», azaldu du Godoyk.

WEBGUNEAREN ATALAK

Bizipozaeskola.eus sortu dute, hortaz, elkarlanean. Bertan aurki ditzakegu hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta herrigintzaren atalak, eta nazioarteko egunak biltzen dituen egutegia ere bai, horiek

baliatuz gaiak lantzeko. Beste eremu bat elkarreana da. Hor, bakoitzaren materiala jasotzen da, zerbitzuez gain.

Konpartitzeko txokoa dago, azkenik. Asmoa da Euskal Herrian zehar Bizipozaren materialetan oinarrituta izandako bizipenak jasotzea, eredu gisa.

Sartu orduko, “Zipriztindu zure ingurua!” leloa ikusiko dugu koloretako papertxoaren artean handitzen. «Gai hauek denok dira: minbizia, desgaitasunak, gu izan gaitzekerla beste herri batzuetatik etorri garenak... Denok dugu zer emana eta zer jaso. Bizipoza Eskolak hori islatu nahi du».

HARRERA BEROA

Hezkuntzako hainbat eremutan ari dira Bizipoza Eskola aurkezten, eta «oso harrera beroa eta esker ona» jasotzen ari dira guztietan. 230 erabilzailetik gora dituzte jada.

Lantzen dituzten gaiak askotarikoak dira: gaixotasunak; aniztasun funtzionala, gaitasunak eta gabeziak; familia aniztasuna eta sexu orientazioa; identitatea, genero rolak eta transexualitatea; kultura-aniztasuna; heriotza; boluntarioria eta bizipozaren jaiak; eta zer da bizipoza?

Norbere buruaren ezagutza eta taldekidetasuna ere jorratzen dituzte. Gai kuttun bat du hau Nereak, begiak zabaldu dizkio: «Hirugarren pertsona erabiltzeko joera dugu izaera bereziko gai hauetan: ez gara gu, beste batzuk dira. Ni Nerea naiz eta ez daukat desgaitasun diagnostikorik, baina ez naiz edozer egiteko gai eta askotan laguntza behar izaten dut. Nor naiz ni? Zer daukat emateko eta jasotzeko?».

«ZE DESBERDIN ETA ZE ONDO»

2023ko urtarriletik maiatzera Euskal Herri osoko zortzi ikas-



tetxetan eta EHUn egin zituzten proba pilotuak, baita AEKn, Zirimola aisialdi taldean eta Gipuzkoako Bertsozale elkartearen ere. Proiektua horrenbeste leku eta egoeratan martxan jarri izana aberastasun handia izan zen: «Proposamena berdina da, baina errealitatera eramatean emaitzak anitzak dira eta hori da benetako bizipoza: ze desberdin eta ze ondo».

Jendartea aldatu ahala eskola eguneratzea da erronka. Horretarako material eta jarduera berriak igotzen ari dira, webgune bizia izateko.

KOLORETAKO BETAURREKOAK

Koloretako betaurrekoekin agertzen dira Bizipoza Eskolako kideak. «Mundua bizipozez ikusteko modu bat da, aniztasunari erreparatuz. Antiojoak jantzita eduki beharko genituzke edozein eremutan gaudela ere». Betaurrekoekin ondoan nor duzun ikusten duzu, nolakoa den, zer behar dituen, zer eman eta zer jaso dezakezun. Bizipoza jarrera bat da bizitzaren aurrean.

Baikortasunez so egitea da, irribarrez, baina baita negarrez ere, «tristurak eta pozak partekatuz, biek baitute garrantzi bera». Horregatik asmatu du Porrotzek hitz berri bat: «nebarrez». Bizipoza «nebar» egiteko leku bat da.

NDANK NDANK

Erran bezala, Bizipoza Elkartean izatera anitzeko 38 elkarteek guztiontzat izan beharko lukeen mundua sortzeko lan egiten dute. Horietako bat da Bergarako Ndank Ndank, senegaldar eta euskaldunetz osatutako irabazi asmorik gabeko elkartea. Bi komunitateen arteko elkarrekintza eta komunikazioa bultzatzen du, kulturartekotasunaren balioa

Bilbon Bizipoza Kantari egin zuten. «Hori izan zen pilotatzeetan pilotatzeena, haurrekin Bizipozako elkartearen gaiak landu genituelako naturaltasunez, irriz, artearekin».

«Oinarri sendoa genuen, eta beharra. Gure elkarteetako haurrak gizartearen parte dira: eskolara doaz, aisialdira, kirola egin nahi dute, baina batzuetan bazterrean geratzen dira».

goraipatuz. Lankidetzan, Senegalgo Dionewar herrian hainbat proiektu gauzatzen ditu.

«Ndank Ndank» espresioak «pixkanaka-pixkanaka» erran nahi du senegaldarrez. Halaxe bilakatu da zaletasun edo ekintza berri bezala hasi zena bizi proiektu Eli Dominguez eta Mamadou Sarrentzat.

«Lagun giroan hasi ginen», oroitu du Dominguezek. «Elkartrukeak egin nahi genituen euskaldun eta senegaldarren artean, Dionewar herriko baliabideak hobetzeko. 2011ko azaroan sortu genuen elkartea, ezagutzarik gabe. Nik Senegalera bidaiatu nuen, eta esperientziak asko markatu ninduen: nire bizitzan 180 graduko aldaketa gertatu zen. Mamadou eta biok lagun izatetik bikote izatera pasatu ginen. Seme-alabak jaio ziren, eta elkarteak beste garrantzi bat hartu zuen».

Urteetan boluntario bezala ibili dira, eskola eta herrietan sentsibilizazio ekintzak egiten. 2019an, bidaiak antolatzen hasi zirenean, indarra hartu zuen elkarteak. Nahiz eta txiki izaten jarraitzen duen, Ndank Ndank zabaltzen joan da, eta Sarr elkarterako lanean ari da lanaldi erdian.

«HONDARREZKO HERRIA» IPUINA

Ekintza ugari proposatu ditu Ndank Ndank-ek Bizipoza Eskolarako. «Hondarrezko He-



Bizipoza Jaiaaren aurkezpena, asteazken honetan Hernanin. Jon URBE | FOKU

HERNANIKO HERRIAK PLAZA ESKAINIKO DIE ELKARTEEI, APIRILAREN 27KO JAIAN

Bizipoza Jaia urtero egiten da herri desberdin batean, eta aurtengoa Hernanin ospatuko da, apirilaren 27an. Jendartean aurkezteko, prentsurrekoan bildu dira asteon Hernaniko Udaleko ordezkariak, Xabier Lertxundi alkatea eta Axier Mingo Euskara zinegotzia; Bizipoza elkarteordezkariak, Leire Elizegi eta Markel Oiarzabal; Pausoka Elkarte Amaia Irazusta eta Super H-ko Joseba Labaka.

Oiarzabalek GAUR8ri azaldu dionez, egun hori aitzakia bat da elkarteak protagonista bihurtzeko eta herriko plaza eurei eskaintzeko. Egun osoko egitarau bete ari dira osatzen, baina garrantzitsuena da elkarteek postua jartzeko aukera izaneko dutela materiala banatzeko eta zenbaitetan sare sozialen bidez ikusten ditugun pertsonak aurrez aurre ezagutzeko. Lekua eta bozgorailua eskainiko die jaiak.

Hernanik ere ekarpena egingen dio jaialdiari. Hernaniarra da Markel, eta koordinatzaile dabil, jaiaren eta herriaren arteko lotura eginez. «Bizipozaren jaia hernaniarron jaia ere bada. Asmoa da herri eta norbanako bezala inplikatu eta jaia gure sentitzea», adierazi du. Kulturako eta

jendarteko eragileen partetik jasotzen ari diren erantzuna «oso-oso positiboa» da. San Juan konpartsa, erraldoi eta buruhandiak, dantza eta aisialdi taldeak... Lehen unetik baiezkoa eman diete parte hartzea proposatu dietenean.

Nerea Godoy Bizipoza Eskolako arduraduna herriko ikastetxe guztietan izan da proiektua azaltzen, «jaiari ekarpena egin nahi diote ezagutza bat edukitzeko». Haurrei egokitutako aurkezpenak ere egin dituzte, pailazoekin eta koloreekin.

«Sentsazio oso positiboa dugu», erran digu Oiarzabalek. Interprete zerbitzua egonen dela iragarri du eta familia guztiak gonbidatu ditu etortzera. Bi gunetan banatuko da jaia: Atsegindegi plaza elkarte eta ikuskizunentzat izanen da, eta Urbieta kalea, tailer eta erakustaldientzat.

Bizipozako 38 elkarteetatik 25 inguru hurbiltzea espero dute. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ere dantzaldi handi bat egingen dute. Ikusten ez den lan handia dagoenez atzean, boluntario bila dabilta. Ekarpena egin nahi duenak markel@bizipoza.eus-era idatzi bertzerik ez du. Edozein laguntza anitz eskertuko dute.

ria” ipuina sortu du Aroa Elortza elkarteko artistak, eta eskolako baliabideen artean dago, denon eskura.

Senegalgo Dionewar herria eta bere bizi filosofia ezagutzeko era bat da. Beste begirada bat proposatzen du, hausnarketak beste puntu batetik eginuz: «Euskal Herritik Senegalera zer eramango genukeen galdetu ohi da. Baina guk buelta eman diogu galderari: zer ekarriko genuke handik?».

«Bidaian joaten direnak beti doaz laguntzeko ideiarekin. Elkartasunezko bidaia bat egiteko asmoarekin, seme-alabek Euskal Herrian duguna baloratu dezaten. Baina azkenean kontrakoa gertatzen da, eta gogoetak beste alde batera egiten dira, ohartuz zer gabezia ditugun gizarte bezala eta zenbat gauza galdu ditugun. Hori ere polita da».

“Hondarrezko Herria” ipuinaren irakurketarekin berdina gertatzen da. Maiz, helduok eskola eta ospitaleetako baliabide faltan jartzen dugu fokua; haur eta gazteek bestelako ikuspegia dute, ordea, eta nolako lekua den ikusten dute. Zoragarria: hondartza, zaldi ibilaldiak, arrantza, izurdeak...

Gauza pila bat ekarriko litzukete: hango pertsonak, familia sentimendua, elkar laguntza, lasaitasuna eta poztasuna...

PATERNALISMORIK GABE

Zer da kulturartekotasuna? «Aurreiritziak apurtu beharrean, indartu egiten ditugu batzuetan», hausnartu du bergararrak. «Askotan, asmo onez, kultura edo herri bat landu nahi dugunean, Google bilatzailean jotzen dugu eta estereotipoetan jausten gara. Halako ekintzekin motz gelditzen garela uste dut. Folklore eta janaria lantzen dira, ez



hainbeste bizi balioak eta filosofia. Elkartruke aberats batetik baino, paternalismo ikuspegi batetik».

Ndank Ndank-en hori puskatu nahi dute. «Egiten ditugun bidaietan eta sortzen ditugun materialetan beti saiatzen gara elkarrekotasuna transmititzen, zer eman eta zer jaso dezakegun; hori da gure filosofia. Beste bizimodu edo kultura batzuetatik ezagutu eta ekarri ahal ditugun baloreak asko dira».

Bizipoza Eskolan eta Elkartean ere filosofia bera dute, eta emateaz gain, pila bat jasotzen dute Ndank Ndank-tarrek ere: mikrodokumentalak eta material politak sortzeko aukera, baita beste hainbat errealitate ezagutzeko zortea ere. «Familia horren parte izatea oso aberatsa da. Kontziente izateko gizartean zenbat behar eta errealitate dauden, eta denon artean lan egiteko mundu hobe baten alde».

BIDAIK

Senegalekiko ikuspegia, jatorri ezberdineko pertsonenga-

Bizipoza Eskolak elkarteen begirada jaso eta zabaltzen du, besteak beste Ndank Ndank-ena. Bertako kidea da Eli Dominguez (eskuinetik hasita lehenengoa). Behean, erdian, goxo besarkatuta, Nerea Godoy eskolaren arduraduna.

TAPUNTU KOOPERATIBA

nako begirada aldaketa eta migrazio fenomenoaren lantzen ari dira Ndank Ndanken. Kulturartekotasuna transmititzen eta arrazakeriaren kontra borrokatzen, ahalik eta esparru gehienetan.

Hiru ume dituzte Eli Dominguezek eta Mamadou Sarrek, 9, 7 eta 2 urtekoak, eta beraien gaitik dabilta batez ere elkartean. «Gure seme-alabek beren jatorria ezagutu behar dute, eta jaso izan dituzten mezuak ez dira beti onak izan. Gaur da eguna oso harro daudena beren jatorriaz. Gustura bidaiatzen dute, eta baliabide faltari baino, bizitzari eta baloreei erreparatzen diete. Bidaie-

Bizipozaeskola.eus-en dago materiala, edonoren esku. «Denon gaiak dira: minbizia, desgaitasunak, kulturartekotasuna... Denok dugu zer emana eta zer jaso».

Zortzi ikastetxetan eta EHU-n egin dituzte proba pilotuak, baita AEKn, Zirimola aisialdi taldean eta Gipuzkoako Bertsozale elkartean ere. Emaitzak hagitz aberatsak izan dira.

tan herriko enbaxadore izatea eta Bergarako beste familia batzuekin esperientzia partekatzeari ere pozik bizi dute».

Bidaian erantzuna, izan ere, itzela izan da. Martxoaren 19 batean bururatu zitzaion Eliri ideia, eta apirilaren 4rako aurkezpena egiten ari ziren. 15 pertsonarentzako eskaintzarekin joan ziren arren, egun hartan bertan ia 26k eman zuten izena, eta azkenean 30 lagunek bidaiatu zuten uda horretan. Ederki pasatu zuten.

Oso eskertuta daude Bergarako herriari, beti jaso izan dutelako babesa.

Bi bidaia mota egiten dituzte: alde batetik, elkarbizitza. Dionewar irlan egoten dira batik batik, etxetxo batzuetan, familiekin batera, eta bertako jabeek kudeatzen dute dena. Bertako janaria jaten dute, ohituretan parte hartu, auzolanetan, zineforumetan... Uda inguruan, opor garaian izaten denez, jende gaztea eta familiak erakartzen dituzte batez ere. Horregatik, urtean beste formatu bat eskaintzen hasi dira, eta jubilaetuak ere animatzen ari dira. Ibilbide txiki bat egiten dute Senegalen barrena. Turistikoa da, baina oinarri bera du: bertako bizimodua ezagutzeari.

Bigarren formatuan, apirilaren 27tik maiatzaren 6ra joateko taldetxoa osatua dute, baina nahi duenarentzat oraindik bada lekua. Udan beste elkarbizitza bidaia bat egingo dute; plazak beteta daude, ordea.

MODA BILDUMA

Bidaiez gain, hitzaldiak eta zineforumak antolatzen dituzte “Teranga” dokumentalaren inguruan. Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduako Maider Bernad, Ainhoa Imaz eta Mikel Agirrek Ndank Ndank elkar-

PILOTATZEA EGIN DUTEN IKASLEAK, ESKERTUTA

Ainhoa Gana Dañobeitiak Haur Hezkuntza Gradua atera zuen EHUren Bilboko Hezkuntza Fakultatean, eta gaur egun bertan dabil lanean, etorkizuneko irakasleak prestatzen. Toki aproposa izan da, hortaz, Bizipoza Eskola frogatzeko.

«Bi ikasgaitan egin genuen pilotatzea: didaktika orokorrean eta hezkuntza inklusiboaren oinarrietan. Diseinatutako unitate didaktikoaren egokitasuna aztertzeaz gain, praktikan jarri genuen. Ezin denak hartu, eta gai bakoitzeko bat probatu genuen gutxienez, taldeka: familia aniztasuna, heriotza eta dolua, kulturartekotasuna... Gero, hobekuntza proposamenak bidali genituen Bizipoza Eskolara, eta kontuan hartu zituzten», agertu du lezamarrak.

Gradu hauetan sarri beste herrietako proposamenetatik abiatzen direnez, ikasleek biziki eskertu zuten Euskal Herrian bertan sortutako unitate didaktikoak baliatzea. «Beti ari gara sortzen, baina zergatik ez ondo daudenak aprobetxatu eta egokitu?». Hain ohituta ez dauden gai batzuk lantzea ere estimatu zuten, adibidez dolua eta heriotza, familia aniztasuna eta

LGTBI kolektiboa. Libre aukeratzen utzi zieten, eta gehienek horiek hartu zituzten.

Orain, Hezkuntza Fakultateak eta Bizipoza Eskolak elkarlanean jarraitzea da asmoa, ez dadin gela horietan bakarrik gelditu, material hau baliagarria baita graduko lau mailetarako.

Ainhoak Gizarte eta Hezkuntza Eremuko Ikerketa Masterra egin zuen, eta amaierako lana Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen pailazogintzaz egin zuen. Horren harira ezagutu zuen Bizipoza, eta ordutik beti jarraitu izan du. «Oso urte gutxitan gauza oso aberasgarriak egiten ari dira gizartearentzat. Mundua (bizi)pozten ari dira. Hurbiltzen zaren bakoitzean jasotzen duzu ematen duzuna baino askoz gehiago.

Boluntariorzatik datoz, auzolanetik, eta nabari da hori», adierazi du.

Haur Hezkuntza ikasi zuenetik bi kezka ditu barruan Lezamakoak, euskara eta baloreak; eta horiek biak zutabe, bere ibilbide pertsonala eta profesionala elikatzen saiatzen da. Futbolearen ere aritu zen; Derioko Emakumeen futbol taldeko jokalaria izan zen, eta Euskal Ligara igotzea lortu zuten. «Polita da talde kirola orokorrean, elkar



Ainhoa Gana eta Idoia Legorburu, pilotatze baten partaideak. TAPUNTU

animatzeak zer garrantzia duen ikustea; norbaitek momentu txar bat badu beste bat ondoan egotea. Hezkuntza ere talde lana da», egin du gogoeta.

Datorren ikasturtean orientatzaile izateko masterra egiteko asmoa du, lan horretan euskara eta baloreekin lotuta zeregin handia dagoela ikusten duelako.

tearekin elkarlanean ekoiztiko lana da hau.

Urtean behin, moda bilduma ere ateratzen dute. Honek indarra hartu du. «Dionewarren kultur eremu bat sortu dugu, eta bertan artisauren tailer bat eraikitzen ari gara, josteko makina batzuk bidali ditugu, eta asmoa da aurrerantzean jantziak eta osagarriak handik eginda ekartzea».

Eskolako eta anbulatorioko azpiegiturak hobetzeko proiektuak eraman ditu aurrera Ndank Ndank-ek. Horrez gain, bertako emakumeei lan aukerak eskaintzen saiatzen da. Iaz emakumeen kooperatibaren ostatu txiki bat eraiki zuen, beste diru iturri bat izan dezaten. Bestalde, Dakar hiriburuan ikasle pisu bat du alokatuta 15 pertsonarentzat.

«Asmoa da bertako gazteek ez izatea buruan Europara etortzea bakarrik. Ez da bidaia erraza, bide irregularrak dira aukera bakarra». Aldarrikapen

bat egiten du elkarteak: «Edozein gazte bezala, eskubidea izan beharko lukete beren etorkizuna erabakitzeke. Autoerrealizaziorako, beren ekintzak antolatzeke. Gogorra da beraientzat, nahiz eta ikasi, aukera askorik ez ikustea».

Bitxikeria bat kontatu digu Dominguezek, gauzatzen ari diren elkarrekintza hobeki ulertu dezagun. «Garai batean, Dionewar herrian estropadak egiten zituzten, eta euskaldunek han izan ziren bidaia batean berreskuratu zituzten. Bada, orain, antolatzen jarraitzen dute. Borroka senegaldarra da bertako kirolik ezagunena, eta borroka bat ikusteko aukera izango dugu apirilko bidaian».

Ndank Ndank-en beste proiektu bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan migrazioaren gaia beste era batean lantzea da. «Neokolonialismoa ikusarazten saiatzen gara, azalduz gaur egun enpresek

aurrera eramaten duten baliabide ustiaketaren ondorioz, Kongon, Senegalen eta beste toki batzuetan gatazkak sortzen direla eta horrek migrazioan eragina duela. Gaia beste erpin batzuetatik aztertzen saiatzen gara, ikuspegi eurozentrismatik aldentuz eta zabalago begiraturaz».

Mikroarrazakeriak erakutsiko dituzten hainbat bideo labur sortuko dituzte apirilean, eta maiatzean, 21a Kultur-aniztasunaren Nazioarteko Eguna dela baliatuz, kontzertua, moda desfilea, eta dantza eta musika ikuskizunak eskainiko dituzte Bergaran, bertze ekintza batzuen artean.

Ndank Ndank elkarteak,
Senegalgo paraje
zoragarrietan bidaian.
NDANK NDANK



Van Gogh Experience» delakoa Bilbora heldu da azkenik, Deustuko Next Museum-era, hain zuzen ere. Apirilaren 9a bitarte, Herbehereetako artistaren bizitza berrikusi daiteke, baina modu ezberdin batez. Ia urpekaritza ariketa da eskaintzen dena, bere jardueraren tragikoan murgilduz eta sakonduz, artelanen bitartez betiere.

12 eta 14 eurotan dira sarrerak, eta 45 minutuz luzatzen da esperientzia. Gaizki-ulerturik izan ez dadin, adi, bertan Van Goghen margoak ez direlako agertzen, ez da ohiko erakusketa, alegia. Van Goghen maisulanak bizirik dira, mugitu egiten dira, eta ikusleak nolabait bere larruan bizi ditzake, barnerratu ditzake.

ARLESEKO LOGELA

Bukaera tiro bat da. Azken finean, Van Goghek bere buruari tiroa egin ziolako, Auvers sur l'Oise-n, Paristik gertu. «Van Gogh Experience» honen azken pasarteak bertara eramaten zaitu, Zunderten jaiotako artistak bere bizitzari amaiera eman zion zelai har-

«VAN GOGH EXPERIENCE» BILBON: KOLORE ETA MUSIKA KARRUSELA

Alessandro RUTA

Apirilaren 9ra arte Deustuko Next Museumean Vincent Van Gogh artistaren maisulanen barruan bizi daiteke, literalki. Hau ez da margo erakusketa hutsa, oinazeak ezaugarritutako margolariaren bizitzaren barruko murgiltzea baizik.

tara. Tiro bat, bele multzo bat hegaz, eta ilunpean gela...

Gela, bai: hau baita erakusketaren sekretua. Sartzetakoan, «Van Gogh Experience» honek ohiko erakusketa dirudi: artistaren bizitza laburbiltzen duten panelak (euskaraz ere bai, oso ongi) eta koadro batzuen erreproduzioak, jatorrizkoak hainbat museotan daudelako: Amsterdamen, Parisen...

Hortik aurrera, «Experience» hori forma hartzen hasten da. Eskuin aldean, bat-batean, Van Gogh Arlesen bizitza zen garaiko bere logela ageri da. Xumea, ia inozoa, tonu horiaz... hunkigarria, duda izpirik gabe. Egilearen koadroan ematen du perspektiba arraroa erabili zela, okerra-edo; hemen, aldiz, apur bat ordenatuago dagoela dirudi. Zenbat aldiz ikusi dugu gela hori, liburuetan edo, agian, Van Gogh Museoa, Amsterdamen? «Experience» hau nolabait teoriatik praktikara bidea egitea da.

Aurreraxeago, Van Goghen beste ikur bat etorri zaigu begietara: eguzkiloak. Erakusketaren benetako gakora hurbiltzen ari gara.

BILUZIK DEN ARETOAN

«Van Gogh Experience» hau errealitate birtualaren bidez gozatu nahi izanez gero, betaurreko batzuk har daitezke sarreran, lau euroren truke. Gure kasuan ez ditugu hartu, baina agian ikusgarritasuna are hobea litzateke horiekin. Azken geldialdia areto handi batean da. «Biluzik» dagoen areto batean. Bertan aulki batzuk, ez besterik. Eta hor hasten da karrusela, musikaz eta kolorez betea.

Agian ordurako abiapuntua galdu duzue eta beste toki batean agertuko zarete, baina ez kezkatu, ibilbideari buelta eta erdi emanek konpon daiteke, 40 minutuko bisita gehi... luzapena. Kontua da Van Goghen existentzia eta esentzia bizi ditzakegula, zinez. Eta zein da hori? Nire uste apala hau da: hasieran sekulako pena islatzen dute bai berak bai bere artelanek, zenbat kolore eta argitasun eta aldi berean zein handiak diren tristura eta malenkonia. Gainera, Vincenten joan-etorri eta go-





rabeheri buruzko detaile guztiak da-
kizkigu, misteriorik ez zuen pertsona
da, milaka gutun idatzi zizkiolako
Theo anaiari, ia egunero.

Eta gero, arrakasta, hil ondoren jaki-
na denez, neurri handi batean artista-
ren gertutasunari esker: denok noiz-
bait bere frustrazio berberak izan
ditugu; denok inoiz gure bizitza alda-
tzen saiatu izan gara, maiz etsi-etsian,
Van Goghek egin zuen moduan; eta
zenbait aldiz, bidegabekeriaren bat sa-
latu ostean bakarrik edo burua galduta
sentitu gara. Ba hori dena agertzen da
«Van Gogh Experience» honetan.

Margoen bidezko bidaia da, bere go-
rabeheren barrukoa. Bidaia fisikoa ere
bai: Herbehereetatik hasita Auversen
hil zen arte, Paris tartean dela. Eta ar-
tistikoa, noski: errealtatean oinarritu
zen hasieran Van Gogh, gero impresio-
nismoari heldu zion eta azkenik sinbo-
lista bilakatu zen.

MARGOAK BIZIRIK

Bilakaera hau oso ongi antzematen da
erakusketan. «Patata-jaleak» margoa
oso ezaguna da, Van Gogh errealista-
ren adierazle, baina inoiz ez dugu ikusi
gixajo multzo hori benetan jaten,
ahoa mugitzen; margoak bizirik dira.
Eta aipagarria da musika ere: Bach,
Strauss eta Carl Orff, besteak beste. Oso
potentea da Carmina Buranaren «O
fortuna» entzutea Van Goghen hainbat
auto-erretratu mugitzen diren bitar-
tean, txanpon makinen antzera, azke-
nean gelditu arte: «Semper crescit/Aut



Deustuko Next Museum-en
bisitatu daitekeen «Van Gogh
Experience» erakusketan
hartutako zenbait irudi, tartean
Arleseko logela famatua.
GAUR8

decrescis/Vita detestabilis», *crescendo*;
efektua ikaragarria da.

«Experience» honen oztopo bakarra
aretoko zutabeak dira. Gelaren barruan
mugitu daiteke, 360 graduko esperien-
tzia izateko, baina erdian traba horiek
izatea ez da gauza eroso, batez ere ko-
loreak gure begietan «korrika» ari dire-
nean. Edozein kasutan, oso ideia ego-
kia da erakusketa hau, batez ere artista
baten lanak toki askotan sakabanatuta
direnean. Izan ere, non ikus genezake

Van Goghen opera omnia 40-45 minu-
tutan? Modu interaktibo honekin hori
lortzen da, museo batetik bestera ibiliz
baino askoz hobeto agian, jatorrizko
bertsioan izan ez arren.

Hala ere, esan beharrekoa da Van
Goghen mundua ulertzeko badela
Deustuko museoa baino toki egokiago
eta hunkigarriago bat: Arleseko Place
Lamartine. «Etxe horia» koadroan dago
hori, eta hortik paseatzeko aukera ba-
da... Arles ez baita gugandik oso gertu.

{ ikerketa } Asier AIESTARAN

HIRIGINTZA OSASUNTSUA

Nazioarteko ikerketa batek hirietan gazteen buru-osasuna babestu dezaketen gakoak identifikatu ditu

Nature” aldizkariak zientzialari askoren artean osatutako nazioarteko ikerketa bat argitaratu berri du, hiriak nerabe eta gazteen buru-osasunarentzat egokiak izan daitezzen hainbat gako identifikatuz. «*Making cities mental health friendly for adolescents and young adults*» da ikerketaren izenburua, eta aldizkariaren webgunean irekian kontsultatu daiteke.

Ikerketaren sarreran aipatzen denez, hirigintzak hiritarren osasunean duen eragina aztertzeke kezka ez da berria, baina kasu gehienetan azterketa lan hori ingurugiroarekin eta pertsonen osasun fisikoarekin lotuagoa egon izan da. Gune berdeen garrantzia, trafikoen eragina, kutsadura, zarata... izan dira aztergai azken hamarkada luzeetan.

Era berean, azken urteotan, eta batez ere pandemiaren ondotik, pertsonen buru-osasuna eta bereziki nerabe eta gazteen buru-osasuna kezka iturri bilakatu da, arazo eta gaixotasun desberdinak areagotzen ari direla egiaztatu baita.

Bada, argitaratu berri den ikerketak bi faktore horien arteko harremanak aztertzen ditu, gaur egungo jendartearen garapenean garrantzi handia izan dezakeelakoan. Hori oinarritzeko, hainbat datu deigarri ematen dira: UNICEF erakundeak 2017an egindako txosten baten arabera, adibidez, 25 urtetik beherako gazteak dira herri txikietatik hirietara gehien mugitzen diren adin taldea, eta 2050erako munduko haurren %70 hiri handietan biziko dela kalkulatu da.

Era berean, psikiatria arloan 2005ean egindako ikerketa ba-

70%

UNICEF erakundeak 2017an egindako txosten baten arabera, 25 urtetik beherako gazteak dira herri txikietatik hirietara gehien mugitzen direnak, eta 2050erako munduko haurren %70 hiri handietan biziko da.

24

2005eko ikerketa batek erakutsi zuenez, nerabezaroa eta gazte garaiko lehen urteak buru-osasuneko arazoak izateko adin-tarte bereziki kritikoak dira. 65 urte bete aurretik garatzen diren gaixotasun mentalen erdiak urte horietan hasten dira; horietako %75, 24 urte betetzerako. Mundu mailan, 10-24 urte arteko pertsonen gaixotasun gehienak buru-osasunarekin lotuta daude.

tek erakutsi zuenez, nerabezaroa eta gazte garaiko lehen urteak buru-osasuneko arazoak izateko adin-tarte bereziki kritikoak dira. 65 urte bete aurretik garatzen diren gaixotasun mentalen erdiak urte horietan hasten dira; horietako %75, 24 urte betetzerako. Mundu mailan, 10-24 urte arteko pertso-

nen gaixotasun gehienak buru-osasunarekin lotuta daude.

GALDEKETA ZABALA

Nerabe eta gazteen osasun mentala babestu eta «haien ahotsak entzunaraziko lituzkeen hiri-paisaiaren elementuak zehazteko», 53 herrialde-tako 518 pertsonak osatutako

lagina erabili du ikerketak; digitalki egindako hiru inkestatan parte hartu dute, 2020ko apirilean hasita.

Lehen inkestan, galdera honi erantzun zioten parte-hartzaileek: «Zer ezaugarri ditu gazteen osasun mentalarentzat egokia den hiri batek?». Jasotako erantzunen analisia 134 adierazpenetan laburbildu zuten zientzialariek, eta bigarren inkestan parte-hartzaileek 134 baieztapen horietatik 40 aukeratu behar izan zituzten. Fase horretan, beste galdera bat ere egin zitzaion, Covid pandemiak hirietako gazteen ongizatean izandako eraginari buruz.

Hirugarren eta azken inkestan, adierazpenak garrantziaren arabera zerrendatzeko eskatu zitzaion, horretarako Bronfenbrenner-en teoria erabiliz, pertsonen garapena inguruko faktoreekin harreman-tzen duena, eta adierazpenak sei eremu sozio-ekologikotan sailkatuz: pertsonalak, inter-pertsonalak, komunitarioak, antolakuntzakoak, politikoak eta ingurumenekoak.

Gainera, adierazpenen balorazioa hiru irizpide desberdinen arabera eman zuten parte-hartzaileek: berehalakotasuna gazteen osasun mentalean; hirietako gazteriari aurrera egiten laguntzeko gaitasuna; eta ezarpenaren erraztasuna edo bideragarritasuna.

PISTA BATZUK

Arlo pertsonalari dagozkion adierazpenetan, lehen postuan «bizitzarako trebetasunak, ga-



Lehen irudian, etxebizitza berrien eraikuntza, Zarautzen. Bigarren argazkian, Baionako etxebizitza bloke bat, Gramont kalean. Gorka RUBIO | FOKU - Patxi BELTZAIZ

rapen pertsonalerako aukerak eta gazteen gaitasunak loratzeko aukerak ematen dituen hiria» kokatzen da (93 pertsonak jarri zuten lehen postuan). Deigarria da bigarren aukeratuena «gazteak beren emozioei aurre egiteko eta erronkak gainditzeko prestatzen dituen hiria» izan zela (62), baina emaitza guztien batez bestekoa aterata, laugarren postura jaitsi zen.

Pertsonen arteko harremanei dagokien eremuan, gazteen onarpena eta errespetua gailendu ziren, belaunaldien arteko harremana ere balioan ipiniz. «Harreman seguru eta osasungarriak» izateko aukera bigarren postuan ageri da, baina esanguratsua da neurri erraz eta bideragarrienen atalean horixe izan zela adierazpen bozkatuena.

Harreman komunitarioei dagokienez, ikerketan parte hartu zutenek lehentasuna eman zioten gazteek «biltzeko, sozializatzeko, ikasteko eta elkar-konektatzeko espazio publiko, aske eta seguruak» izateari. Irizpide guztietan gailendu zen aukera hori.

Antolaketa-eremuan aniztasun gehiago dago iritzietan, seguruena aukera gehiago ere bazirelako (8 adierazpen). Batez bestekoak aterata, erabat osagarriak izan daitezkeen bi ezaugarri nagusitzen dira besteetan gainetik: «Laneko segurtasuna eta gogobetetzea ahalbidetzen duten enplegu aukerak eskainiko dituen hiria» eta «hezkuntza sistema arduratsu eta solidarioa» bermatuko duena. Gazteak kontuan hartuko dituen osasunerbitzua ere (sexuari buruzko edo buru-osasunari buruzko informazioa eskainiko duena, adibidez) garrantzitsutzat jotzen dute inkestatuek.



518

«Nature» aldizkarian argitaratu den ikerketak 53 herrialde desberdinetako 518 pertsona hartu zituen lagin moduan. Hiru galdeketa erantzun behar izan zituzten, 2020ko apirilean hasita. Lehen galdeketatik 134 adierazpen nagusi atera ziren; bigarrean, horietatik 40 aukeratu behar izan zituzten; eta hirugarrean, garrantziaren arabera ordenatzeko eskatu zitzaizkien.

Politikaren eremuko lau adierazpenen artean, gazteen ekarpena eta genero-perspektiba duten hirien diseinua eta plangintza izan ziren hautaketa nagusia (%30,68). Hori bai, ezartzeko neurri bideragarriena «erakunde guztietan lankidetzaren demokratikoa, aukeraberdintasuna eta diskriminazioaren aurkako neurriak sustatzea» da, gazteen arabera.

Azkenik, ingurune sozial eta kulturalen atalean, «gazteen osasunaren aurkako determinatzaile sozialei aurre egitea» kokatu zen lehen postuan. Adierazpen nahiko generikoa da. «Osasun mentaleko arreta bilatzen duten gazteak normalizatzea eta zerbitzu-hutsuneen aurre egitea» izan zen aukeratuena proposatutako hiru irizpideetatik bitan. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea ere garrantzitsutzat jo zuten.

PANDEMIAK AZALERATU

Inkestaren emaitzak pista batzuk eskaintzen ditu gazteen kezka eta arazo nagusiei buruz, baina nahiko abstraktuak izan daitezke. Ikerketak Covid garaian gazteek izandako sentimendu eta bizipenak ere biltzen ditu, eta bi elementuak elkartuta ondorio osatuagoak atera daitezke.

Asko laburbilduz, ikerketak nabarmentzen du pandemian ezarritako mugikortasun oztopoek azalera zuzentzen dituzten hirietako etxebizitzaren gabeziak (espazio oso txikiak, askotan balkoirik gabekoak, argi gutxiak...) eta espazio publiko irekien garrantzia (parkeak, berdeguneak...).

Horrekin batera, pandemian derrigorrezko bilakatu ziren aurrez antzematen ziren hainbat joera: etxetik lan egitea, online ikasketak, online egiten

diren jolas eta komunikazioak... Zenbait kasutan bakar-dade sentimendua areagotu dezaketen egoerak eta buru-osasuneko arazoak izateko arriskua handitu dezaketenak.

Ikerketak berak egindako lanaren ahulgune batzuk aipatzen ditu, esaterako, jendarteko gizatalde baztertuena partaidetza lortzeko zailtasunak, digitalki egin den galdeketa, baina era berean, hirigintzan dabilzan arduradunei oso kontuan hartu beharreko zenbait irizpide eskaintzen dizkie, hiriak gazteentzat bizi-garriagoak egiteko.

Ikertzaileek onartzen dutenez, oraindik askoz ikerketa gehiago egin behar dira hirigintzak pertsonen buru-osasuneari duen eragina zehatz-neurtu ahal izateko, baina orain argitaratu den hau urrats bat da bide horretan.



Leire LAREKI SANCHEZ eta Eneko MENDILUZE PLAZA
Psikopedagogo eta psikologoa



Harreman Osasuna: harremantzen naiz; beraz, banaiz

zaki sozialak gara. Ez gara dortokak, arrautzatik atera bezain pronto uretara korrika doazenak inolako kontakturik gabe. Gure gurasoak elkartu ondoren, gure ama erdituz gatoz mundura, “erdia eginez”. Gure garunaren garapenaren ikuspegitik, %20 baino gutxiagorekin jaiotzen gara, egoera guztiz subkortikalean, kortex garatu gabean, hain zuzen. Babesa edo beldurra, erosotasuna edo mehatxua, goxotasuna edo deserosotasuna, plazera edo mina sentitzen dugu. Oinarrizko bi sistemak biziki aktibatuta ditugu momentu oro eta, utero biologikoa baino, utero soziala behar dugu modu osasuntsuan hazteko.

Amaren gorputzarekin dugun hasierako fusio egoerak poliki-poliki forma aldatzen du. Bere barnean egotetik, bere bihotza, tenperatura, gorputza gure sentitzetik, ezberdinak garela ohartzera salto egiten dugu. Zilbor-hestea, titi-zilborra, logela-zilborra... gutxinaka “ebaki beharrezkoak, bat gorputzaren bizitzeko, bestea gogoaren askatzeko”, Mikel Laboaren esanetan.

Garunean kokatzen den sistema linbikoa batez ere lehengo urteetan garatzen dugu, eta, harremanaren bitartez, orekatzen ikasten dugu. Sistema linbikoaren erdigunean amigdala deitzen den almendra itxurako sumendi emankorra dugu, eta lobulu frontalaren bitartez sumendiaren labarjarioa baretzea lortzen dugu.

Amigdala, hasieran, erraztasun askorekin kitzikatzen zaigu, alerta eta beldur sakonak sorraraziz. Gurasoengandik jasotzen dugun arretaren bitartez, kopetaren inguruan kokatzen den lobulu frontala garatu egiten da, eta mundua amigdalak esaten diguna baino ziurragoa dela konturatzen gara. Eskerrik asko, ama eta aita, honetan laguntzeagatik.

Hasierako babes harremanek gure erlazioatzeko modua hein nabarmenean baldintzatzen dute. Egia da hartu-eman horietatik gauza batzuk hartu eta beste batzuk utzi nahi izango ditugula, agian ezta hartu ere. Hasierako esperientzia horiek harremantzeko hazi bilakatzen dira guretzat eta oro har helduaroan lau modu nagusi hauek islatu daitezke.

1. Zurekin ziur sentitzen naiz. Norbait badagoela ziurtasunez dakiena. Modu askean distantzia hartzeko gaitasuna

duena eta laguntza behar duenean eskatzen dakiena. Akatsak egin eta haietatik ikasten du; esaterako, konponketa lanetan abilezia du.

2. Ez dut inor behar. Autosufizientziaren izenean oinarrizko beharrak ukatzen dituena. Maiztasunez, barne emozioetatik aldentzen dena, nolabaiteko argaltze emozionalean sartuz edota basamortu afektiboan bere burua kokatuz.

3. Zu gabe, ni ez naiz. Intentsitate handiko pasiozko harremanak eraikitzen dituena eta hauek galtzearen beldur dena. Horrek ez du maitasun gehiago adierazi nahi, inola ere. Zailtasunak aurkezten ditu bere emozioak besteen emozioetatik ezberdintzeko.

4. Zurekin ez, zu gabe ere ez. Muturreko bi jarreratan kokatzen dena. Harremantzeko nahiaren eta beldurraren artean, kontraesanean edo barne gatazka sakonean dagoena. Maiztasunez, adierazpen eta ekintzen arteko ageriko desadostasuna azaltzen du.

Ariketa: Non kokatzen duzu harremantzeko garatu duzun modua?

Harremantzeko era hauek bizitzaren hasieratik amaierara aldakorak eta malguak dira, noski, baina urteen poderioz gero eta zurrinagoak bilakatzen dira. Eratzen ditugun harremanek gure barne munduan erabateko garrantzia dute, gure psikologian, eta zentzu honetan, psikologia kontzeptua bera mugatua da, sinplea eta testuingururik gabekoa.

Buru osasunari edo osasun mentalari buruz hitz egiten duenean, psikea modu isolatuan aztertzen da. Fokua orokorrean labor xamar geratzen da eta, haratago joateko asmoarekin, ondorengoa da proposamena: garatu dezagun Harreman Osasunaren ideia.

Ariketa: Zure harremanen mapa. Ondoko irudian kokatu itzazu zure harreman esanguratsuenak, gertutasuna eta urruntasuna kontuan izanik. Behin osatuta, mapa behatu. Zerbaitek ematen al dizu atentzioa? Zergatik? Zer iradokitzen dizu? Zergatik? Zertarako? •



{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Gazako su-etenaren zain, Europa gerrarako prestatzen

Gazako «hondamendi humanitarioa» ez da berez gertatu, horretaz konturatu da halako batean AEBetako presidenteorde Kamala Harris, eta berehalako su-etena eskatu du asteon. Zer esango ote du bere Gobernuak NBEko Segurtasun Kontseiluan behin eta berriz su-eten proposamenei betoa jarri diela jakindakoan? Azken betoa AEBetako enbaxadore laguntzaileak azaldu zuen NBEko Asanblada Orokorrean: «Horrelako ebazpen batek arriskuan jarriko zituzkeen negoziazio-efortzu handiak».

Ez dakit ramadanaren hasieraren bezperako zapatu honetan Gazan su-etenik dagoen. Hartarako «oinarizko puntuak» adostuta omen zeuden duela astebeite baino gehiago, baina egunean baino egunean desadostasun gehiago agertuz joan ziren, Israelek negoziazioa utzi zuen eta lerro hauek idazterakoan zalantza handia zegoen ramadana baino lehen Israelen bonbardaketak gelditzerik izango ote zen.

AEBetako administrazioek arazoren bat daukate, nonbait, genozidioari genozidio esateko. 1994an Ruandan izan zen sarraski ikaragarria genozidiotzat jo zuen NBEk, eta Bill Clintonen Gobernuak «genozidio ekintzak» aipatu zituen. Genozidio izateko zenbat genozidio ekintza behar ziren galdetu zioten. Ia milioi bat edo batek daki zenbat pertsona hil ziren. Europako zenbait herrialderen eta AEBen erantzukizun nabarmena gaur egun nabarmenagoa da.

Wodrow Wilson AEBetako inoizko presidenterik onena izan zela uste dute askok. Clinton eta Joe Biden bezala Alderdi Demokratikoak, munduan demokrazia zabaltzea izan zuen ardura nagusia. Demokrazia, herrien autodeterminazio eskubidea barne, eta kapitalismoa, bateragarriak balira bezala. Wilson supremazista ere bazen, inor ez da perfektua. Errua ez zen

berea, ordea; Virginiakoa baitzen eta, eskorpioiak igelari heltzeko tentazioari ezin eutsi zion bezala, bere izaera arrazista (eta antisemita) nabariarazi zuen bere agintaldian. D. W. Griffith-en “The Birth of a Nation” filmak erreferentzia egiten dio Wilsonen esaldi bati, zeinak Ku Klux Klan erakundea goستن duen.

Wilson izan zen Nazioen Elkartearen bultzatzaile nagusia. Lehen Mundu Gerra edo Gerra Handia esan zitzaionaren ostean sortua, nazioarteko elkarte hark ez zuen beste gerra handi(ago) bat eragozteko balio izan, horregatik sortu zuten, bigarrenaren ondoren, Nazio Batuen Erakundea. Eragotziko ote du NBEk hirugarrena? Edo laugarrenik izan ez dadin beste nazioarteko erakunde bat sortu beharko ote da, laugarrena izateko aukerarik baldin badago?

Eragotziko ote du Nazio Batuen Erakundeak hirugarren mundu gerra? Edo laugarrenik izan ez dadin beste erakunde bat sortu beharko ote da, laugarrena izateko aukerarik baldin badago?

Ursula Von der Leyenek dio Europak gerrarako prestatu behar duela. Arma ekoizpena eta erosketa bateratzea erabaki du Europako Batzordeak. Ez dakit Gazan su-etenik dagoen gaur, baina «dagoeneko», “El País” egunkariaren arabera, Europa gerrarako prestatzen ari da. Lehengoan Emmanuel Macronek proposatu zuen Ukrainara tropak eramatea. Baina Errusia da mehatxua. Eta Israel? Ez da gauza bera, esango digute, gauzak konplexuak dira, zer eta noiz den gauza bera eta zer eta noiz ez den xedatzen duen diskurtsoa baliatuta. Gu ez gara ulertzeko gai eta esan behar digute noiz prestatu behar dugun gerrarako, baina ez zergatik, oso gai konplexua delako, hain zuzen. •

MARRAZOEN ATZETIK

Ekosistemaren osasun onaren adierazle den espeziea babesteko euskal saiakerak

📁 **BIOLOGIA** / Nerea GOTI

Marrazoek Bizkaiko Golkon dituzten portaera ereduak eta haien migrazioak aztertzen ari da Maite Erauskin-Extramiana, AZTI zentro teknologikoa buru duen proiektu baten barruan. Espeziearen atzetik urruneko itsasoetara eraman duen egitasmoaz hitz egin du ikertzaileak GAUR8rekin, eta marrazoen gaineko irudi berri bat utzi du.

Masterra egin zuten Itzasa Ekologiaren,

Mexikon; doktoretza egiteari ekin zion ondoren, klima aldaketak arrain pelagikoei nola eragiten dien aztertuz, batez ere atunean eta antxoetan zentratuta, eta egun marrazoen portaera ikertzen ari da buru-belarri, AZTI zientzia eta teknologia zentroak bultzatzen duen proiektu baten barruan. Maite Erauskin-Extramiana da zientzialari hori, eta harengana jo dugu marrazoen inguruko ikerketa horren nondik norakoak ezagutzeko.

Seychelleseetan aurkitu genuen lehen kontaktu batean, Euskal Herrira itzuli eta oso egun gutxitara, hegaldi bat hartzeko zorian zen, bigarren saiakeran. Pasaian dagoela hitz egin ahal izan dugu Erauskin-Extramianarekin, ikerketak eskatzen dituen joan-etorrien arteko tartetxo batean.

Animalia hobeto ezagutzeko, azaldu du marrazo espezie ugari dagoela munduan, haietako batzuk desagertzeko arriskuan daudenak. Euskal kostaldetik gertuko uretan marrazo urdinak eta mako marrazoak dira espezie ohikoak, baina informazio gu-

txi eta orokorrean ezagutza eskasa dago animalia horien inguruan, gure kostaldean dauden marrazo horien portaera ereduaren eta migrazioen gainean, zehazki.

Pasa den urtean abiatu zen AZTIk bultzatutako ikerlana,

Nahi gabe arrantzatutako marrazoen biziraupena babesteko kudeaketan trebatzea da AZTIko ikertzaileen zereginetako bat. Irudian, abian dagoen proiektuan lan egiten duen taldeko kide bi, arrantza sareetara begira.

AZTI

«marrazoen portaera aztertze-ko eta Bizkaiko Golkoko itsas ekosistema babesteko». «Espezie horiek giza jarduerekin batera egoteak, hala nola arrantzarekin eta turismoarekin, nahi ez diren elkarreraginak sor ditzake, ekosistemaren jasangarritasuna aldatzen laguntzen dutenak», zehaztu zuen ikerketa zentroak, proiektuaren berri ematean.

Egitasmoaren barruan, markaketa egiten ari dira ikertzaileak, horrek emango dituen datuekin ezagutza handiago bat osatzeko. Eta bide horretan, arrantzan eta turismo jardueretan dabilzan lagunaren eta herritarren ekarpena garrantzitsua da, anima-

lia horien mugimenduen mapa osatzeko.

Ikerketa proiektuak marrazoen kokapena eta denboraldiaren inguruko datuak bildu nahi ditu, besteak beste, «horrek bide emango baitu espezie horien arrantza-hilkortasuna murrizteko kudeaketa neurriak garatzeko». Izan ere, arrantza sektorearekin lotutako alde hori da ikerketaren ardatzetako bat. AZTIk berak azaldu zuenez, babes neurriak jarri diren arren, marrazoek ez dute arreta maila bera izan, kasu batzuetan populazioak erabat kolapsatzera helduz.

Erauskin-Extramianak azaldu duenez, zeregin ezberdinak daude, eta ez dira Bizkaiko



Golkora mugatzen, perimetro handiago bat hartzen dute: «Euskal kostaldean ohikoenak diren espezieak hiru ozeano-tan daude. Markaketan eta gehien nondik ibiltzen diren ikusten ari gara zentratzen, haien habitatak zehazteko, baina ezin dugu perspektiba zabalago bat galdu, askoz espazio handiago batean ibiliko direlako». «Hemengo aleak, ziurrenik, Atlantikoan sartuko dira, Kanariar irletarantz edo iparralderantz», zehaztu du ikertzaileak.

Habitaten inguruko informazio bilketa horretaz gain, arrantzan beste arrain espezieekin batera nahi gabe arrantzatuak izaten diren marrazo horien biziraupenarekin lotutako lana azaldu du. Kasu horietan, arrantzatutako marrazoen biziraupena sustatzeko egiten diren praktika onenak lantzen ari dira atunketarien laguntzarekin. Betebehar horretan aritu dira ikertzaileak azken hilabeteetan: «Barkua Seychelletan hartu genuen eta, azkenean, Indiako Ozeanoko mendebaldean ibili gara; Madagaskarreraino jaitsi gara, Kanalean sartu gara eta inguru horretan ibili gara; egia esan, kilometro nahikotxo egin ditugu atunen bila».

Itsasaldi txarren eta elementuen kontrako borroka betean murgildutako ikerlana irudikatu badugu, esan duenez, ez da horrela izan. Ez da Montzoi garaia, giro lehorra aurkitu dute, eta ekaitzak, egon badira ere, tenperatura oso altuak izan dituzte, «hemen daukagunarekin alderatuta oso giro polita, egia esan», kontatu dio GAUR8ri, azken asteetan bizitako une horietaz.

Argitu duenez, sarritan egoten dira ikertzaileak arrantza

Arrantza munduan espeziearen hilkortasuna murrizteko teknika egokienak garatzea da proiektuen helburuetako bat, bestea jarraipenean zentratzen da

Marrazoen markaketak egiten ari dira, horien migrazioak aztertzeke, baina, horren ondoan, «interes handiko eremua» den Bizkaiko Golkora begira dago ikerketa

barkuetan, «proiektu hauek ez dira hilabete bakar batean garatzen, denbora behar dute». Zeregin horretan, arrantzatu-tako atunekin batera beste zer espezie heltzen den aztertzen ari dira, eta marrazoak heltzen direnean zer egoeratan iristen diren ere bai. Horiekin, markaketa egin dute; horrela, beraien biziraupena, mugimendua eta portaera ereduak jarraitu ditzakete.

Satelite markaketa egin dute, eta horrek mugimenduz gain datu gehiago ematen du: tenperatura, presioa, argia... Helburua da ikustea zer ibilbide egiten duten. Marka horiek denbora bat irauten dute. «Guk jartzen ditugun marka horiek denbora batean askatzen dira, satelite bidez informazioa bidaltzen digute, eta kasu ezberdinak daude. Markak irauten duen denboraren arabera, helburua izan daiteke marrazoak nondik nora ibiltzen diren ikustea, zer migrazio patroia dituzten, zer zona dituzten nahiago; kasu haue-tan epe laburrago bat jartzen dugu, batez ere ikusteko barkuan eduki duten manipulazioaren ondoren zelan dauden, jakiteko zein den modu hoberena beraien biziraupena sustatzeko».

Nahi gabe arrantzatuak izan diren marrazo horiei, trataerari dagozkion praktika onak apli-



Irudian, zientzialariak ale baten markaketa egiten. OCEAN COLLECTIVE

BIZKAIKO GOLKOA ALE GAZTE UGARIREN INGURUNEA DA, UMATZEKO LEKUA AL DA?

Marrazoen inguruan dagoen imajinario horretatik oso urrun dago euskal uretan ikus ditzakegun aleen errealitatea. Hasteko, zerikusirik ez dute Akuarioan ikus ditzakegun tamaina handiko ale ikusgarri horiekin. «Ur beroagokoak dira horiek», zehaztu du Maite Erauskin-Extramianak, gure inguruan ikus daitezkeenak espezie txikiagoak direla gaineratuz. Izan ere, askoz ale txikiagoak ikus daitezke gure inguruko uretan, eta horren azalpena bilatu nahi dute. Esan dutenez, 40 zentimetroko aleak daude –markatu duten handienak 2,60 metro neurtzen zuen–. Bitxia dena da ale gazte asko dagoela hemen.

Ikertzaileak azaldu duenez, «marrazo espezie bakoitzak umatzeko espazio bat du, hazkuntzarako eremu moduko bat, eta ikusi nahi dugu Bizkaiko Golkora haientzat horrelako espazio bat ote den, ale txikiak ikusi ditugulako. Galizia aldean ere ikusi ditugu, Portugal aldean, orduan, oraindik ez dakigu zehazki, baina ikusten ari gara ale txikiak direla, eta txikiak direnean ezin dute urrunera igeri egin, horrek iradokitzen du hemen inguruan egon

daitekeela eremu bat non umatzen ari diren».

Europako Batasuneko eta Lakuako babesaren proiektuak hori argitu dezake: «Izan daiteke uragatik, edo hemen eskuragarri duten janariarengatik... Horregatik da hain garrantzitsua ikerketarekin aurrea egitea, ezagutza hori guztia lortzea, gauzak hobeto ulertzeko eta espeziearen babesaren hobeto kudeatu ahal izateko». Ikerketak proiektzio geografiko handiago bat du, halere, «espezie hau Atlantiko osoan, Pazifikokoan eta Indiakoan dagoelako; ezagutza handiagoarekin espeziearen inguruko ideia orokorrago bat izan dezakegu». Horregatik, garrantzitsua da ikertzaileentzat ahalik eta informazio zabalena biltzea. Horrekin lotuta, Erauskin-Extramianak nabarmendu du «proiektua herritarren parte hartzerarekin irekita» dagoela, hel daitezkeen informazio guztia onuragarria dela «gure ezagutza handitzeko, eta horregatik gonbidatu nahi ditu» itsasoan dauden eragile ezberdinak «egiten dituzten begitatzak gurekin partekatzerarekin».



katuz, biziraupena luzatzerik dagoen aztertzen ari dira, animalien hilkortasuna txikitzeko. «Ikertzen ari gara zein den modu onena kalte gutxien eragiteko», zehaztu du zientzialariak, eta argitu du arrantzan kaltetuta suertatzen diren aleak normalean denbora gutxira hiltzen direla, baina arrantzatuak izan arren, kalterik ez badute bizirik jarraitzen dutela.

Klima aldaketak animalia horien mugimenduetan edo presentzia espazialean duen eragina ez dago argi momentuz. Euskal ikertzailearen esanetan, goiz da oraindik horren inguruko ondorioz ateratzeko. Helburua, orain, datuak biltzea da, baina denbora luzeago bat behar du marrazoen behaketak, zenbait portaeraren atzean dauden arrazoiak zeren arabera diren zehazteko. «Oraindik goiz da jakiteko klima aldaketak zer inpaktu duen. Egia da asko mugitzen diren espezieak direla, migratu egiten dutela, eta orduan, argi dago, eragin bat egon arren, marrazoek gaitasun handiagoa daukatela beste espezie batzuk baino,

Lerro hauen gainean, Maite Erauski-Extramiana AZTIko ikertzailea. Beheko irudian, zientzialaria arrantza itsasontzi batean.
OCEAN COLLECTIVE-AZTI

deseroso egiten zaizkien egoerak saihesteko».

Argi utzi du, halere, berebiziko garrantzia duela marrazoen kontserbazioak. Batzuetan ekosistemak akabatzen dituen harrapakari batekin lotu ohi da marrazoa, zinemak utzitako irudi desitxuratu horren ondorioz, ziurrenik, baina errealitatea irudikapen horietatik oso urrun dago,

Gure kostaldean marrazoak izatea ekosisteman osasunaren adierazle oso ona da. Kate trofikoaren zati oso garrantzitsu bat direla nabarmendu du AZTIko zientzialariak

Marrazoak zenbait filmek imaginario kolektiboan utzi dituzten irudietatik urrun daudela azpimarratu nahi du ikertzaileak: «Ez dira erasotzera jotzen duten animaliak»

ikertzaileak nabarmendutakoaren arabera: «Gure ekosisteman marrazoak edukitzea oso seinale ona da, azkenean kate trofikoan oso goian dauden espezieak dira eta oreka mantentzen laguntzen dute».

«Espezie horren desagerpenak eragina izan dezake kate trofiko osoan. Beraz, esaten ditadenean 'hemen marrazoak daudela? Zer beldurra!' notizia txar bat izango balitz bezala, kontrakoa dela esaten diet, marrazoak izatea oso seinale ona da, gure ekosistemen osasun ona adierazten du horrek, burutik kendu behar dugu 'Tiburón' filmaren ostean gizar-

tean geratu den ideia hori». Nabarmentzen duenez, «ez dira erasokorrak». Adibide bat jartzen du: «Askotan erasoak gertatzen dira haiek elikatzen diren eremuetan gabiltzalako, okertu egiten dira eta koska egiten badigute probatu egiten gaituzte, eta gu ez gara haien gustukoak».

«Gustatuko litzaidake jendeak marrazoei aukera bat ematea, animatuko nuke beraiekin igeri egitera, esperientzia ederra baita, eta beraiekin dugun ideia aldatzen lagunduko du», azpimarratu du, inguruan dauden aukerak baliatzera animatuz.



Igogailuan behera

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Erditik ireki da atea, eta sartu egin naiz. Botoia sakatu dut zerogarrenera jaisteko, eta bere tokira eraman dut bufandari beti bezala erori zaion muturra; nik ego-tea nahi dudana tokira. Orduan begiratu diot lehenengoz igogailuko ispiluari, eta azken hilabeteotan inoiz ez bezala ikusi dut hark itzuli didan isla: bakarrik.

Haur jaioberria soinean ibili bainaiz, erabat, kabina honetan gora eta behera. Hala atera ditut dozenaka erretratu mugikorraz, bizitzako aro hau noizbait ahaztuko dudanaren beldurrez-edo, betikotzeko, sekula ez amaitzeko: bera eta ni, ni eta bera, biok. Bi baina bat, biok bat. Ez baikara kanguruak, ez, baina,

behar dugu jaio eta beste bederatzi hilabetez, gutxienez, gure amei itsatsita bi-zi, kanpo-haurdunaldi batean bezala.

Kontua da, gaur oraindik ez direla bost hilabete ere igaro erditik ireki eta unibertso honetan bigarrenez sartu nintzenetik. Gaur, goizegi da honetarako; goizegi pisuz pisu etxetik urrutiratzeke. Ez dut nahi, berak ere ez du nahi; berak behar nau, elkar behar dugu. Azkarregi doa igogailua behera, hura ere bere izen eta izanaren kontrakarrean, zergatik ez beheragailu, nola da posible, oihukatu nahiko balit bezala gertatzera doana lekuz kanpo dagoela.

Banekien gaurkoa bazetorrela. Baze-kien buruko egutegiak, nahiz eta gorpu-

tzekoaren tempo beste bat izan. Saiatu naiz lantokira, erritmo produktibo kapitalistara, itzultzeko momentuarekin gehiegi ez pentsatzen; are, astroren batzuk elkar jo eta itzulera hau ez zela gertatuko ere sinetsarazi diot neure buruari zenbait gautan. Baina iritsi da.

Iritsi zen, duela bi aste. Zurrumbilo eta anbibalentzia formatuan, nola ez. Nire uste guztien kontra, on egin didalako burmuina aspaldi utzitako zereginetara nahiko ondo itzuli dela ikusteak. Eta, nire uste guztiakin bat eginik, itzulerarekin eroso samar sentitze horrek erru dوسي berri bat sartu didalako zainetara. Hori ere bai baita amatasuna: igogailu izanda ere, behera jaitsi behar izatea. •

Berrogei

Miren AZKARATE
BADIOLA

Gaurko egunez jaio nintzen duela 40 urte, martxoaren 9 batean. Bai, berrogei, ai amaxo maitia!!! Eta niri iruditu oraindik 28 ditudala! Ba ez, Miren, ez. Ez dakit non, urte batzuk galdu zaizkit niri ohartu gabe. Eta gainera entzungo dut egunotan: «40? Orain hasten da onena!». Ba ez dakit ba, nik ez ditut oso ongi jaso.

Duela 40 urteko prentsan azaldutako albisteak bilatu ditut. “Hertzainak” diskoa kaleratu zela izan da ikusi dudana lehena. Ondoren, eta garaiak zeintzuk ziren ongi jakinda, eraildako zerrenda handi bat azaldu zait: Santi Brouard bere mediku kontsultan, GAL-ek “Peru”

eta “Stein” Hendaian, Pasaian Polizia Nazionalak Komando Autonomoetako lau kide. Baina gertakari gehiago ere izan ziren, tartean 78 urteko emakume iruindar bat etxetik bota zuten eta Gaztelu plazan kanpaldi bat egin zen protesta moduan, bost egunetara udaltzainek atera zituzten handik. Edo beste hau: Sakanako hainbat udal elkartu ziren eskualdeko udal eta kontzeju guztiak bilduko zituen mankomunitatea osatzeko. Istiluak polizia eta herritarren artean, ETA Politiko-militarrak armak utzi zituen... Luze joko luke zerrendak.

Jolas moduan, kuadrillan galdetu dut: zein albiste irakurri nahiko zenu-

kete hemendik 40 urtera? Erantzunak: «Irakurtzea bera ez legoke gaizki; 82 urterekin?! Zerua existitzen dela demostratu du Mimesotako Unibertsitateak; Martuteneko kartzela zegoen tokian duela 35 urte landatutako haritzen basoak nazioarteko milaka bisitari jaso ditu; homo sapiens espezieak homo solidariumi eman dio erreleboa; puf! Eztit buruak ematen; gaurtik aurrera ura, elektrizitatea, etxebizitza eta elikadura eskubide unibertsalak izango dira, egiatan...»

Urteak betetzen jarrai dezagun eta irakurri nahi genituzkeen albisteak egitaritzen. •



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



IHESA ZILEGI BALITZ

Migrazioari aurpegia jarri diote Gari Garaialde eta Javi Julio fotokazetariak

Hondar azpian ehortzitako gorpu baten ondoan zulo sakona zain. Nor iritsiko. Chamseddine Marzoug arrantzalea eta taxilaria hondartzan agertutako hilotzak lurperatzen aurkitu zuen Javi Juliok Tunisian. «Hilean bitan hondeamakina bat uzten didate eta behar ditudanak baino zulo gehiago egiten ditut. Denak beteko dira», izan ziren bere hitzak. GARA egunkaririk azaleko argazkia eskaini zion 2017ko urriko irudiari.

Hauxe da Donostiako Bulebarrean apirilaren 7ra arte ikusgai dagoen “Ihesa zilegi balitz. Huir es un derecho. Ce sont des personnes” erakusketan bisitariak aurkituko duen argazkietako bat. «Arrantzalea da eta zoritxarrez bere sareetan ez du aspaldi arrainik harapatzen, bizitza hobearen bila datorren jendearen hilotzak baizik», adierazi du Juliok.

Tunisiako eta Greziako argazkiak aukeratu ditu erakusketarako. Aita Mariren lehen misiokoak tartean. Aita Mari ontziak 79 lagun erreskatatu zituen bere lehen operazioan. 2019ko azaroa zen. Poza eta itxaropena irudikatzen du Julioren argazkiak. Bizipena 2021ean estreinatutako dokumentalean jaso zuen.

Bertan zihoan migratzaile baten testigantza irakur daiteke irudiaren azpian. Bere izena emateko beldur zen. «Sei emakume zeuden txalupan, horietako bat haurdun, eta haur bat. Itsasoan bi egun eman genituen. Erreskatearen ondoren, sei egunez egon ginen itsasoan, ekaitzaren azpian, porturatzen uzteko zain. Libia izan zen makurrena. Han, beltza izateagatik hiltzen zaituz-

📁 KULTURA / Xole ARAMENDI ALKORTA

Donostiako Bulebarrean hiritarrek tupust egingo dute hain begi bistan izan ohi ez dugun errealitatearekin. Talde bezala ikusten dugun horren atzean dauden pertsonak izen-abizenez erakutsi nahi izan dituzte Gari Garaialdek eta Javi Juliok. «Istoria potenteak bizi izan dituzte, bidaia bera bizi-proiektua da askotan», diote.

te; atxilotu egiten zaituzte, dena kentzen dizute eta kalean oinez ibiltzeagatik bakarrik kolpatzen zaituzte (...).».

Zorigaitzoko errealitatea ere begi aurrean. Lesbosko hondartza batera 2015ean iritsitako gorpua.

Javi Julio (Donostia, 1978) eta Gari Garaialde (Irun, 1972) dira

“Ihesa zilegi balitz” proiektuaren sustatzaileak. Euren irudiekin batera Mikel Oibar (Bilbo, 1987) eta Santi Donaireren (Jaen, 1988) argazkiak ere bildu ditu erakusketak.

Xabier Leteren poesiak eman dio izenburua. «Leteren poema izugarria da eta erakusketaren izpiritua oso ondo adierazten

du. Ihesa zilegi balitz, gure Estatuak onartuko balute beraiek gure herritik ateratzeko duten eskubidea, batez ere gure herrira sartzeko eskubidea, erakusketak alferrikakoa litzateke», adierazi du Garaialdek.

Emakumearen gorputza beti da gerra-arma. Farhia Abdulwahad Somaliatik iritsi zen Irunera. Ez du bidaiaren xehetasunik eman nahi. Isiltasunak zenbat esaten duen...

Muturrekoa. Edo urdailean emandako ukabildakada sentituko du bat baino gehiagok irudiok ikustean.

Munduan 110 milioi pertsonak baino gehiagok utzi behar izan dute euren etxea. Berlingo Harresia erori zenean, 1989ko azaroaren 9an, hama-bost harresi zeuden mundu

Muga mendiz mendi ezkutuan pasatzeko ahaleginean, iratze artean dago Oumar. 2021eko maiatza da, Biriatu. Aden, Abdoulaye eta Ibrahima aurrerago ditu zain.
Gari GARAIALDE | BOSTOK PHOTO





osoan. Gaur egun ia bost aldiz gehiago dira. Denera 46 argazki jarri dira. Sei egituratan banatuta, olan handietan kokatu dira argazkiak. Egitura bakoitzak harresi bat irudikatzen du. Bidasoatik abiatuta, Melilla eta Ceutara, hortik Greziara. Kristina Berasainen testuek eman die testuingurua irudiei. Euskarazko, gaztelaniazko eta frantseseko testuez eta mapaz lagundu dira argazkiak.

Bidasoako harresia du abiapuntu. «Migrazioak asko kezkatu izan nau beti. Etxean askotan hitz egin izan dugu gaiaz. Nire aitita Ondarroatik etorri zen Hondarribira. Migratzailea al zen? Migrazio irregularrari dagokionean, garai batean Calaisera joatekotan egon nintzen, baina deseroso sentitzen nintzen ideiarekin. Ez nuen sakontzeko denborarik, batez ere hain egoera zaurgarrian dagoen jendearekin gaiak eskatzen duen indarra-ekin egoteko. Irunen, konturatu ginenean migratzaileak pasatu ezinik zebiltzala –aurretik ere gertatzen zen–, ‘hau da nirea’, pentsatu nuen. Hemen badago beste modu batera egiteko zerbait», gogoratu

«Migrazioak asko kezkatu izan nau beti. Etxean askotan hitz egin izan dugu gaiaz. Nire aitita Ondarroatik etorri zen Hondarribira. Migratzailea al zen?»

«Nire lanari buruz asko pentsarazi dit. Noiz pasatzen da bat multzotik pertsona izatera? Zer egin dezakegu beraien identitatea babesteko?», kontatu du Gari Garaialdek

du Garaialdek. 2018ko uda zen. Lehen gosari solidarioa egin zen eguna. Irungo Harrera Sarea orduantxe eratu zen, eta 20.000 lagunetik gora artatu ditu. Urruñan eta Baionan ere badira taldeak.

Hasieran denbora gehiago ematen zuten Irunen migratzaileek, eta hainbat harreman egin ditu Garaialdek. Dozenaka testigantza entzun ditu. «Neska batek 21 egun pasa zituen pateran. Bidaia hasi zuten 25 pertsonetatik bera eta beste neska bat bakarrik zeuden bizirik. Autobusetik jaitsi eta berehala kontatu zidan. Egun batzuk gogorak izan dira. Bost urte daramatzat gaia lantzen eta lotu egin nau», aitortu du. Amdik koadernoan

jasotzen ditu bidaiako marrazkiak eta pasarteak. Irunen 2018ko irailean atera zuen bere kameraz Garaialdek. Co-yahn (Ginea) zuen etxea ikus daiteke marrazkian. «Tarteka sare sozialen bidez jarraitu nuen harremana izaten. Parisen zen. Halako batean desagertu egin zen», esan du. Harremana izatetik –ordu gutxi baina intentsoak–, etenera. Beste kasu batzuetan, tarteka Whatsapp bidezko mezu bat. Bizirik dago. Poza.

URTEETAN «KAIXO» ESAN EZINIK

«Farhia Abdulwahad-ekin harremana dut herrian. Haurra izan du. Orandik ez du prozesua egin eta ez du gertatutakoa kontatu nahi. Betiko markatzen du esperientziak. Ibrahim Balde ere –Amets Arzallusen “Miñan” liburuko protagonista– ezagutu dut. Baimena lortu eta lehenengo gauza amarengana joatea izan da. Bost urte zeramatzan amari ‘kaixo’ esan ezinik. Joanez gero, ezin itzuli. Paperak lortu zain egoten dira senitartekoei ‘bizirik nago’ esateko. Izan ere, familiako batzuek ez dakite bizirik dauden ala ez», esan du.

Orain ofizioa desberdin ikusten duen galdetu diogu. «Nire lanari buruz asko pentsarazi dit. Noiz pasatzen da bat multzotik pertsona izatera? Zer egin dezakegu beraien identitatea babesteko? Poliziak gure argazkiak mugak pasatzea debekatzeko erabiliko dituen beldur dira. Bizkarrez edo multzoan aterata deshumanizatu egiten dituzu... Gauzez egindako argazkiek klandestinitatearen iruditeriarekin lotzen dute. Baina hori ere erakutsi behar da. Nola egin?». Galdera airean.

Frantziar Estatuak egunero kanporatzen ditu muga zehar-

katzea lortu duten pertsonak. Irunen uzten dituzte batzuetan mugatik kilometro batzuetara harrapatutakoak. «Kontrolak iraunkorrak, selektiboak eta diskriminatzaileak dira. Gauzez eta egunez daude hor», irakur daiteke erakusketan.

Yaya Karamoko 2021eko maiatzaren 22an ito zen Bidasoan. Egun hura ez zen salbuespena izan. Guztira bost lagun hil dira ibaia zeharkatzeko ahaleginean.

Harresi zeharkaezina bilakatu da muga iheslariantzat. Bide berriak bilatu; besterik ez dute. Muga mendiz mendi ezkutuan pasatzeko ahaleginean, iratze artean, ikus dezakegu Oumar. 2021eko maiatza da, Biriatu. Aden, Abdoulaye eta Ibrahim aurrerago ditu zain. Aden, Guinea Conakryn jaioa, muga Endarlatsa auzotik pasa nahian, Beran ageri da beste argazki batean. 2021eko maiatzean egina da irudia.

Lurrezko harresiak. Ceuta eta Melillakoak izan ziren migrazioa geldiarazteko lehen hesiak. Hegoaldeko harresiak dira, Afrikan daude, baina Europako lehen mugak dira. Gero eta ohikoagoa da mugak kanpoan jartzea, kanporatzea. «Milaka lagun bizi arriskuan jartzen duen estrategia da», diote.

Reny Nguila zortzi ordutik gora egon zen kale-argi batera igota, Melillako hesitik salto egin ostean. Azkenik, Espainiako aldean geratzea lortu zuen. Mikel Oibarrena da irudia.

Eskuan zein hankan Melilla-ko alanbre-hesiak eragindako zauri odoltsuak ikus daitezke migratzaileen azalean. Betiko izango diren orbainak.

Itsasoko harresiak. Mediterraneo hobi komun bihurtu da, munduko handiena. Migrazioetarako Nazioarteko

Aita Mari ontziak 79 lagun erreskatatu zituen bere lehen operazioan. 2019ko azaroa zen. Pozari eta esperantzari tartea egin zien eguna.
Javi JULIO

Erakundeak salatu du 59.000 pertsona hil direla mundu osoan migrazio-bideetan, 2014. urtean heriotzak dokumentatzen hasi zirenetik. Baina heriotza gehienak ez dira erregistratzen. Estatuek portuak itxi dizkiete arrazoi humanitarioengatik itsasoratzen diren erreskate-ontziei. Aita Marik 1.500 lagunetik gora erreskatatu ditu 2019. urtetik.

EZIN ULERTU

2023an 55.000 migratzaile baino gehiago iritsi dira Kanariar Uharteetara. Garai batean, Libiara eta Tunisiara ailegatzaren ziren. Ondo ezagutzen du ingurua Juliok. «2015ean, Austrian, adineko pertsonak jo egiten zituztela ikusi nuen trenbidean. Alemaniara joan nahi zuten. Giza Eskubideen Nobelaren herrian ezin nuen ulertu gudatik ihesi zihozten pertsonak nola jipoitzen zituzten. Lesbosera eta Kiosera joan nintzen neure begiekin ikusi nahi nuelako bertan gertatzen zena. Fotokazetaria naiz eta ikusitakoa kontatu nahi dut».

Hamar urte beranduago, deigarria zaio errefuxiatuak lehen mailako eta bigarren mailako bezala nola sailkatzen diren ikustea. «Edo ikusezin bezala. Bidasoa ibaia igaro nahi dutenak dira horren adibidea, inork ez die galdetzen zein gerratatik ihesi datozen. Errusiak Ukraina inbaditu ondoren gertatu denak erakusten du ze desberdintasun egiten den. Perspektiban jarrita, garbi ikusten da Siriako, Irakeko eta Afganistango gerren-lehenengo munduak finantzatuak- eta Ukrainakoaren arteko aldea. Atentzioa ematen dit. Muga zeharkatzen laguntzen zutenen kriminalizazioa bilatu izan da, nahiz gurean gutxiago gertatu. Zergatik? Migratzaile txiroak eta beltzak zirelako. Kutsu arrazista du. Aldiz, egunkariek euren lehenengo orrian atera dituzte Poloniako mugara hiritarrak jasotzera zihozten taxilariak. Heroiak izan ziren. Amorrua ematen dit erakunde publikoetatik egiten duten desberdintasunak. Ze 'agravio com-



Javi Julio eta Gari Garaialde, Donostiako Bulebarrean jarri duten erakusketan. Gotzon ARANBURU | FOKU

parativo' den saharar edo palestinar batentzat... », egin du hausnarketa. «Argazkietakoak gure auzoetako bizilagunak dira. Sistemak lastima sentiarazten digu Titanic ontziaren arrastoen atzetik batiskafoan joan zirengatik. Nik ere sentitzen dut haien heriotza, noski. Baina gure bizilagunak izan zitezkeen 600 pertsona ontzian hiltzen direnean, eta berria bi albistegitara mugatzen denean, amorrazioa sentitzen dut». Betidanik piztu dio interesa pertsonen mugimen-

duak. «Ez dut ulertu izan zergatik kriminalizatzen den jatorriengatik».

Lana eta mundua ulertzeko duen moduari lotuta dago jarduna. «Exotikoagoa da istorioak Jordanian edo Iraken bilatzea. Baina, orain, bertan dugu. Gariri esan diot, 'zuk ez duzu urrutira joateko beharrik izan istorioak kontatzeko'».

Badu zalantzarik. «Gaia aurrez landu arren, izan gaitezen zintzoak, bertara iristean paraxut bat zara. Hedabideek zergatik erosten dizkigute artikuluak kazetari zurioi? Zeinek dio nik prestigio handiagoa dudala? Zalantza asko ditut. Fokua non jartzen duzun eta zer kontatu nahi duzun garbi izan behar duzu. Edonon aurkituko dituzu argiak eta itzalak. Zerekin geratu nahi duzu? Nik garbi dut, argiarekin», esanez amaitu du.

«Perspektiban jarrita, garbi ikusten da Siriako, Irakeko eta Afganistango gerren-lehenengo munduak finantzatuak- eta Ukrainakoaren arteko aldea»

«Hedabideek zergatik erosten dizkigute artikuluak kazetari zurioi? Zeinek dio nik prestigio handiagoa dudala? Zalantza asko ditut», aitortu du Javi Juliok





Ainara ESTARRONA IBARLOZA

Donostiako Informatika Fakultateko ikertzailea, UPV/EHU



CLARIAH-EUS: Humanitateak, Gizarte-Zientziak eta teknologia bat eginda

osasuna / psikologia / teknologia

3 BEGIRADA:

Azken hamarkadetan gertatu den iraultza digitalak etengabeko zurrunbiloan murgildu gaitu denak. Humanitateak eta Gizarte-Zientziak ere ez dira zurrunbilo horretatik libratzen, eta bertatik onik ateratzeko helburuarekin sortu da CLARIAH-EUS egitasmoa.

CLARIAH-EUS teknologiaren eta Humanitateen zein Gizarte-Zientzien arteko topagunea da. Alde batetik, baliabideak, tresnak eta zerbitzuak biltzen dituen azpiegitura birtuala da, eta bestetik, Humanitateetan eta Gizarte-Zientzietan euskara, euskaraz, euskararentzat eta euskaratik ikertu nahi dutenen arteko sarea ere bada.


Gaur egun, Humanitateetan eta Gizarte-Zientzietan ikeritu ahal izateko, ikerketa-azpiegiturak behar ditugu testuzko, ahotsezko, zenbakizko eta irudizko datuen tratamendu konputazionala egin ahal izateko. Esaterako, testuen analisi linguistikoa egiteko tresnak behar ditugu, ahotsetik testurako transkripzioa egingo dutenak, corpusak arakatzeko tresnak, etab. Europar dagoeneko mota horretako ikerketa-azpiegitura egonkortuak egon badaude; besteak beste, CLARIN (hizkuntzaren prozesamenduko baliabideak biltzen ditu) eta DARIAH (Humanitate Digitalak sustatzeko helburua du). Azpiegitura horiek tresnen eta baliabideen arteko elkarrengarritasuna bultzatzen dute. Horrez gain, baliabideen berrerabilpena, zientzia irekia eta ikerketaren ikusgarritasuna, eleaniztasuna eta Europako ikertzaile eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzak sustatzen dute. Beraz, CLARIAH-EUS euskaldunon arteko sarea da, baina, era berean, Europako sare handirako giltza ere bada.

Euskarak presente egon behar du horrelako azpiegituretan; gure hizkuntzak ezin du Humanitateen eta Gizarte-Zientzien sostengu izateko sortu diren azpiegitura teknologiko eta komunitarioetatik kanpo egon. Hutsune hori betetze aldera, CLARIAH-EUSEk gure hizkuntza, kultura eta errealtatea Europako erakusleihora eraman nahi ditu, eta ikerketan aritu nahi duenari eskura jarri.

CLARIAH-EUS azpiegitura sendoa eraikitzeko, ezinbestekoa da

harreman-sare estua ehuntzea eta erakundeen nahiz administrazioaren inplikazioa bermatzea. Helburu horrekin, dagoeneko bi jardunaldi antolatu dira: lehena 2021eko azaroan izan zen Donostiako Informatika Fakultatean, eta bigarrena, 2023ko azaroan Donostiako San Telmo museoan. Azken jardunaldi horri hasiera emateko, egitasmoa diruz laguntzen duten erakundeetako ordezkariak hartu zuten hitza (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU), eta ondoren, ikertzaileen txanda izan zen. Oso alor desberdinetako lanak aurkeztu ziren; besteak beste, historia, hezkuntza, ekonomia, arkeologia, kazetaritza edota hizkuntzalaritza izan ziren hizpide.

Jadanik Espainiako estatuak jaso du CLARIN eta DARIAH azpiegituretako kide izateko izendapen ofiziala. Hala eratu da estatuan CLARIAH-ES sarea, eta, beraz, zeharka, CLARIAH-EUS dagoeneko Europako azpiegituren barnean dago. Gainera, egitasmoaren bultzatzaile den UPV/EHUko HiTZ zentroak hartu du estatuko azpiegituren bulego teknikoaren ardura. Gaur egun hauek dira CLARIAH-EUS bultzatzen ari diren erakundeak: HiTZ zentroa, EHUKo Ixa, Aholab, ELEBILAB, TRALIMA/ITZULIK, Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT) eta Gogo Elebiduna ikerketa-taldeak, Elhuyar, BadaLab, Soziolinguistika Klusterra, UEUKo Goi-mailako Online Institutua, Baionako IKER ikerketa-gunea, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedra eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuna saila. Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://www.clariah.eu/eu>. •



CLARIAH-EUS egitasmoaren berri emateko 2023ko azaroan San Telmo museoan egin zen jardunaldia. IREKIA

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



IRAZUSTA FAMILIAKO EMAKUMEA BILLARREAN JOKATZEN

Joan den mendeko 20ko hamarkadan, billarreen aritzeko zaletasun handia zegoen. Taberna, jatetxe eta hoteletan iragarri egiten zituzten. Bilbon Estatuko txapelketak antolatzen ziren, Donostian Europako eta Munduko txapeldunak biltzen ziren, eta elkarte gastronomiko eta kultural guztiek eta baita alderdi politikoez ere beren txapelketak antolatzen zituzten. Euskal egunkariak orriak eskaintzen zituzten modako jokoari. Donostian kokatutako Behobiako tornulari batek ere, Martin Guirroyk, bolak egiten zituen gero esportatzeko. Irunen, garai hartan, billar mahaien fabrika bat iragartzen zuten, "Izarra" izenekoa. Hala ere, Euskal Herriko eta Europako prentsako argazkien eta erreferentzien arabera, joko hori gizonezkoentzat baino ez zela zirudien, nahiz eta familia- edo lagun-eremuetan emakumeek ere parte hartzen zuten. Aipatzekoa da Camila Quiroga aktorearen argazkia billarreen jokatzen, 1920an; "El Grafico de Argentina" aldizkariaren azala izan zen. Garai horretan txapelketak irabazi zituen beste emakume nabarmen bat Ruth McGinnis estatubatuarra izan zen. 20ko hamarkada aldaketa-aldi bat izan zen, emakumeak gizarteko esparru askotan parte hartu zuen aldia, eta mugimendu eta sindikatu feministak agertu zirena. Artikuluak erakusten duen argazkiak, ziurrenik mota horretako bakarra denak, Irazusta familiako emakume bat erakusten du urte haietan billarreen jolasten, Papelera del Araxesetik gertu zegoen etxean. Billarreen atzean argazki estereoskopikoak ikusteko bisore bat dago, albumekin batera. Irazustatarak Gipuzkoako Leaburu herriko Txarama auzoko Araxes paper-fabrikaren sustatzaile eta administratzaileak izan ziren.

Lurralde
berrietara
goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz

